EULI-GIRO

UXUE ALBERDI

Uxue Alberdi

Euli-giro

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2013 Uxue Alberdi
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2013ko iraila
Edizio hau: 2013ko iraila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Eñauti
eta
Lurri

Dena ez dago gure esku

Handia eta apartatua zelako gustatu zitzaigun baserria. Negu berean hil ziren Mirenen eta bion amak ustekabean (aitak aspaldi ziren hilak), eta ez zitzaigun herentzian jasotakoa inbertitzeko beste modurik bururatu. 1672an eraikitako Iriarte Azpikoa baserrian leinu luze bateko azken oinordekoak sentitzen ginen. Bi belaunaldi lehenago hamasei seme-alabako familia bizi izan zen lekura aldatu ginen, gu biok bakarrik. Atarian zintzilikatutako erretratu zuri-beltzean ezagutu genituen: hamar mutil eta sei neska, okasiorako dotore jantziak.

Goizeko bostetan esnatzen nintzen, neurez, iratzargailu premiarik gabe. Bezperan bernizatutako altzariak usaintzera joaten nintzen lehenbizi. Gero ura berotzen nuen Miren lo zegoen bitartean, notiziak entzuten nituen eta, bizarra egin ondoren, esnatu egiten nuen te beroarekin gosaltzeko. Eskua irristatzen nion lotarako janzten zuen elastikoaren azpitik, baina «gero» xuxurlatzen zidan erdi lotan, «badakizu».

Baserria berritzeari ekin genion: liburutegi bihurtu nahi genuen lastategia. Isilik lan egiten genuen. Hamabiak aldera «tira, ba» esaten zuen Mirenek, eta sukaldera joaten zen. Hamasei senideko familia hartan pentsatuz bazkaltzea gustatzen zitzaion, seme-alaben izenak asmatzea eta denak errenkan esatea, otoitz bat bezala. Platerak jaso eta logelara erretiratzen ginen. Eta orduan hasten genuen eguneroko bilaketa, astiro. Batzuetan arratsalde osoak ematen genituen zokomiran, aldian-aldian tea edanez atseden hartzeko. Orduan maitasun hitzak esaten nizkion Mireni, eta noizean behin berak izterrak ferekatzen zizkidan behetik gora.

Gogorra zen bilaketa. Armairuak arakatu behar ziren, kutxa zaharrak, ate-osteak eta tiraderak. Logelan hasi eta gainerako geletan barrena, banan-banan. Arratsaldeko zortzietan uzten genion bilatzeari. Akituta amaitzen genuen.

Edozein zokondotan egon zitekeen, gutxien espero genuen lekuan. Noiz azalduko zen ez jakitea zen makurrena. Azalduko ote zen jakitea.

Mirenek azalpen zehatzik gabe uko egin zien Madrilgo ekoiztetxe bateko bi eskaintzari eta nik atsedenaldi bat eskatu nuen aroztegian. Neure kontura saia-

tzeko intentzioa neukan, baina ez nuen aterik itxi nahi badaezpada. Baserria erosi ondoren, herentziatik geratzen zenarekin bagenuen bizpahiru urtean bizitzeko adina. Helburu bakarra genuen: berrogeiak bete aurretik bat lortzea, kosta ala kosta. Eta etxe hartan behar zuen, Iriarte Azpikoan, ez zegoen beste leku baten bila hasteko betarik. Hantxe behar zuen, ondo miatzea zen kontua. Edozein egunetan iritsiko zen, eta prest egon behar genuen.

Mirenek ez zuen gauza handirik egiten. Pentsatu, gehiago. Ez zen inoiz eskuekin abila izan; «traba egiten didate, joder», esaten zuen zerbait erortzen zitzaion bakoitzean. Erori, galdu, labaindu, isuri, kolpatu, jo... Mirenen eskuek egiten zituzten nahi gabeko gauzak ziren. Buruan, aldiz, dena zuen txukun apailatua. Gai zen baserriaren planoa buruz esplikatzeko, berritu beharreko gelen eta altzarien inbentarioa gogoratzeko, lehentasunak markatzeko, koloreak konbinatzeko, hormak eraisteko eta berriak jasotzeko besaulkitik altxatu gabe. Konfiantza osoa nuen berarengan. Nik ez bainekien pentsatzen. Nik egin eta egin egiten bainuen, egiteaz nekatzen nintzen arte.

Mirenek pentsatuta zeukan gure hura nolakoa izan zitekeen, eta harekin egin nahi zituen gauzen zerren-

da ere aipatzen zidan: aspaldi bisitatu gabeko lekuetara itzuli, Zuberoara eta haurtzaroko Artaxonara; elurra erakutsi eta izotz-kandelak; Ibaizabalgo harripausoetan ibili; karramarroak harrapatu haitzartean.

– Aurpegia ikusi diot –esan zidan behin gosaltzen ari ginela.

Poztu egin nintzen, zeren bila genbiltzan jakitea aurrerapauso garrantzitsua zelakoan.

– Izenik pentsatu duzu? –ausartu nintzen.

– Aurkitu dezagun lehenbizi. Hemen nonbait behar du.

Baina nahitaezkoa zen zain egotea. «Zain egon behar dugu, dena ez dago gure esku», esaten zuen.

Bitartean, etxea atontzen jarraitzen genuen. Bizitokia zenbat eta erosoagoa izan, lehenago azalduko zela iruditzen zitzaigun. Ez zuen ezeren faltarik sumatu behar, beste guztien artean gu aukeratu behar gintuen.

Besaulki granatean dekorazio-aldizkariz inguratuta oroitzen dut Miren, edo ateen markoetan bermatuta gela hutsei begira. Batzuetan esaldi bakarra esaten zuen goiz osoan:

– Zure amaren komoda hemen jarriko dugu.

Ondo gogoan dut Iriarte Azpikoaren egitura eta antolamendua. Harlangaitzez egindako baserri sendoa zen, oinarri laukizuzenekoa. Teilatuak bi aldeetara etzaten ziren. Harrizko zutabeek eutsitako haritz-zurezko langa sendo batek osatzen zuen atari zabala. Beheko solairu osoa ukuiluari zegokion antzina, eta bitan zatitu eta bertan hall modukoa eta aroztegia eraikitzea zen gure asmoa. Lehen solairuan, bebarru batetik sartzen zen geletara: ezkerretara sukaldea, erdian jangela ederra, eta eskuinaldean lastategia izandakoa. Lastategitik barrena beste sukalde batera barneratzen ginen: zaharragoa eta itxiagoa hura, hamarkadetan erabili gabeko tximinia izkina batean. Logelak bigarren solairuan zeuden, eta teilatupean ganbara-biltegi-mandioa. Hantxe bereizten zen ondoen etxearen teilatu-zurajea, pieza bakarreko habeen gainean eraikia. Egitura osoak haritz-egurrezko habeak eta karga-hormak konbinatzen zituen, eta egurrezko eta zeramikazko teilaz estaliriko uhal eta gapirioz sostengaturiko teilatu-armadura sendoari eusten zion.

Hegoak jotzen zuen astearte arratsalde batean gertatu zen.

Ganbaratik hastea proposatu zidan Mirenek, bilaketan hurrenkera logiko bat jarraitze aldera. Lehorte-

gia izandako eremuan izara zaharrez estalita zeuden antzinako altzariak miatzen hasi zen bera, eta nik ertz batean pilatuta zeuden kutxei ekin nien. Zeharka begiratzen nion Mireni, ez nion sekula halako ekimenik ezagutu. Giharrak tenk, begiak atezuan, eskuak haztaka. Pilaturiko kutxetan hautsak jandako atorrak eta gonak aurkitu nituen, hamasei seme-alaba haietakoren batenak izango zirenak; soldadu baten erretratua, 1943koa, eskaintza eta guzti: «Un recuerdo de su hijo Juan Unanue». Positiboaren atzealdean zigilu-marka: Julio Montes fotógrafo. San Juan 63. Burgos. Gutunak, baserriaren planoak, kontratuak, lursailen eskriturak, medikutako agiriak.

Miren aditzen nuen altzariak lekualdatzen, ataskei kolpeka. Kamiseta erantzi zuen, azalak dizdiz egiten zion izerditan.

– Zer? –galdetu nion–, ezer ez?

– Ez. Eta hor?

– Hemen ez dago.

Euli bat pausatu zitzaion bularren arteko erretenean, esku-zarta batez apartatu zuena.

Eta bila jarraitu zuen. Gereziondo trinkoz egindako apaintze-mahai bat estalgabetu zuen. Putz egin zion

ispiluari. Ez zuen zolda isla lausotik erauztea lortu. Hiru tiradera zituen mahaiak, baina hutsik hirurak.

– Ederra da –esan nion.

– Bai.

– Nahi duzu zure gelarako? Konpon daitekeela uste dut.

Ilean gatibatu zitzaion beste euli bati putz egin eta esan zidan:

– Ondo –eta gero jarraitu zuen–: Zerbait egin beharko da euliekin.

Ordura arte ez genien erreparatu, baina ugari zegoen, eta egun hartan gogaikarri zeuden, beroagatik agian.

– Utziko diogu gaurkoz?

Begi-zuloak zituen Mirenek. Indar berriz altxatzen zuen izara bakoitza. Eta gure hura ez zen inon ageri.

– Jaitsi zu, ni beste pixka batean geratuko naiz.

– Ukuiluan eta sukalde zaharrean ez dugu oraindik begiratu. Logelak ere falta zaizkigu. Azalduko da.

Ile-xerlo bat belarri atzera eraman nion eta gerri biluzia doi ukituz esan nizkion hitzok.

– Bai.

Ez zuen jaitsi nahi izan. Eta gero, ganbarako atea itxi nuenean, negarrez ari zela iruditu zitzaidan. Zartada bat edo beste aditu nituen jarraian. Bakean utzi nuen.

Atarian atondu nuen mahaia, giro zegoen kanpoan afaltzeko. Han behean herriko argiak antzematen ziren.

Hurrengo goizean, esnatu nintzenean, zurrumurru bat aditu nuen ilunetan, hozkailu batena edo ur-deposituren batena izan zitekeena. Mirenek lo segitzen zuen. Zurrumurrua ganbaratik zetorrela ohartu nintzen. Kontuz egin nuen erdi usteldutako eskaileretan gora, kirrinkak Miren iratzar ez zezan, eta tentuz zabaldu nuen atea. Eskua atalostera itsumustuan eraman eta argia piztu nuen. Dena euliz beteta zegoen, hegaldi zoroan zebiltzan, hormekin eta elkarren artean talka egiten. Sabaitik zintzilik zegoen bonbilla biluziaren inguruan tematu ziren. Aldi berean astintzen zituzten ehunka hegoek ziztu zoli desatsegina sortzen zuten. Atea danbatekoz itxi eta sukaldera jaitsi nintzen.

Irratia piztu, ura berotzen ipini eta intsektizida bilatu nuen garbikarien armairuan. Bi zinta itsasgarri ere topatu nituen. Ganbarara igo nintzen berriro. Su-

durra kamisetaren lepoarekin estalirik, intsektizida zabaldu nuen gelan, batez ere bonbillaren inguruan ekinez. Bizkarka atera nintzen handik, produktu hilgarriari eragina egiten uzteko.

Itzuli nintzenerako, gainezka egindako ura lehortzen ari zen Miren sukaldean.

– Ganbara hartu dute –esan nion.

Intsektizidari begira geratu zen.

– Gutxienez badakigu gurea ez dagoela han.

Nik ez nuen harekin pentsatu, baina arrazoi zuen Mirenek.

– Gero itzuliko naiz, ea honek hil dituen.

Gosaldu eta eguneroko lanetara itzuli ginen. Lastategiko zorua eta hormak amaituta zeuden, pintura zuria eman genien. Apalategi metaliko batzuk muntatzen ari nintzen, pieza bakarreko haritz-egurrezko lanmahaiarekin kontrastea egingo zutenak. Amaitutakoan ekingo nion sehaskari, kulunka egiten zuen bat eraiki nahi nuen Mireni ezustekoa emateko. Bera liburuak kaxetatik atera eta generoka eta alfabetikoki antolatzen ari zen, burua altxa eta niri begira jarri zenean:

– Entzuten dituzu?

Elkarren atzetik igo ginen eskaileretan gora. Atea ireki nuenean Mirenek ahora eraman zituen eskuak. Milaka ziren. Lurrean hildako euli mordoa zegoen, eta erdi hildako asko, hegoak eta hankak zartadaka astintzen. Baina gehiago ziren biziak, gezi-leihoetatik sartzen ziren eguzki-izpien artean hegaka.

– Itxi hori! –agindu zidan Mirenek–. Goazen behera!

Poliki jaitsi ginen, Miren aurretik eta hari segika ni. Tea zerbitzatu nion sukaldean, eta garbikarien armairuan intsektizida-poto gehiago ba ote zegoen begira hasi nintzen.

– Ahaztu. Ez gara berriro horra igoko.

– Akabatu ditzakegu agian –ohartarazi nion.

– Ez, ganbara hartu dute. Kito. Behean bilatuko dugu.

– Ziur zaude?

– Bai.

Apaintze-mahaia gorabehera, ganbaran ez zegoen baliozko gauzarik. Etsiko genuen hara igo gabe. Tea amaitu eta apalategiak muntatzen eta liburuak atontzen jarraitu genuen eguerdira arte. Mirenek ez zuen ezer esan, salbu eta:

– Poemario hau galdutzat neukan.

Bazkalostean atzetik hurbildu eta musu eman nion lepoan. Sorbaldak erlaxatu zitzaizkion. Elkarri begietara begira jo genuen larrua, oso poliki. Esperantzatsu sumatu nuen udako soineko arina janzten zuen bitartean.

Arratsaldean bigarren solairuko logeletan hasi genuen bilaketa. Zazpi ziren, gurea eta beste sei: semealaben logelak eta morroiarena izango zen gela itsua, garai hartako ohearen armazoia eta armairu txiki bat mantentzen zituena. Handik hasi zen Miren eta hormaz horma zegoen logelatik ni.

Armairu zabal bat zuen gelak alderik alde, zizeilu bat aurreko paretaren kontra. Pipiak janda zegoen armairuaren egurra, ezinezkoa izango zen hura berreskuratzea. Barruan zumezko saski handi batean azpizarak eta manta zahar batzuk zeuden elkarren gainean pilatuta. Banaka atera eta zabaldu egin nituen. Haietariko batzuek U.G. inizialak zituzten brodaturik. Hirugarren tapakia zabaltzean, bost mila pezetako billetez betetako gutun-azal bat erori zitzaidan lurrera. Jabeek ahaztuta utzi zituzten isileko diru haiek, eta orain ez zuten ezertarako balio. Lurrean utzi nuen gutun-azala, zizeilua mugitu eta armairuaren goiko apaletara iritsi

nintzen. Egunkari-orriz bilduta zegoen fardel bat hartzera nindoan Mirenen garrasia entzun nuenean.

Zizeilutik jauzi egin eta korridorera irten nintzen. Bizkarra atearen kontra zegoen Miren, zurbil.

– Ikusi egin duzu?

Atea ireki nahi izan nuen, baina indarrez bultza egin zidan.

– Zer gertatzen da?

– Logela hartu dute.

Nik arakatu nuen gelara ere sartu ziren beste batzuk.

– Lasai –esan nion–. Ondo begiratu dut, ez dago hemen.

– Seguru?

Hurrengo logelari ekin genion. Pozoiaren bila jaitsi nahi izan nuen, baina Mirenek ez zidan utzi: «Eta gurea akabatzen badu?». Miatutako geletako ateak eta leiho guztiak itxi genituen, eta hala ere zirrikituetatik pasatzen ziren euliak hamarnaka, ehunka, milaka. Armairuak, tiradera-altzariak, gau-mahaiak, komodak eta kutxak ireki eta barruan zegoen guztia bota genuen lurrera. Eskuz esku ekin genion, izerditan eta arnasestuka. Han nonbait behar zuen.

Eta gero eta hurbilago, inguruan pilatzen zitzaigun hegoen burrunba. Begietara nahi zuten, ahora. Uxatu ahala hurbiltzen ziren berriro. Ileen artean sartzen zitzaizkion Mireni, laguntza eskatzen zidan, astindu eta tira egiten zien bilo ilunei.

Lurrean barreiatutako pusken artean arropa txiki batzuk agertu ziren paketatzeko paperean bilduak: artile garestiz egindako galtzak, jertseak eta tapakiak ziren. Izango zituzten berrogeita hamar urte.

Eskuetan hartu zituen Mirenek.

– Ez dago denborarik –gaztigatu nion.

Demasekoak ziren euli-saldoak: lanparetan, lurrean, kristalen kontra.

Logela guztietan bilatu genuen, eta ez genuen aurkitu.

Izututa zegoen Miren. Besarkatu egin nahi izan nuen arren, oihuka baztertu ninduen. Dardarka zegoen. Esku bat hormaren kontra jarri eta eztulka hasi zen arnasa eteteraino. Izututa hurbildu nintzaion, baina bultza egin zidan ezagutzen ez nion bortizkeriaz.

Oka egin zuen, eta hantxe bertan kukutu zen burua belaunen artean.

Zutik geratu nintzen gorputz erdi biluzi haren aurrean, euliek nola kolpatzen zuten beha.

– Bukatu da.

Eskutik heldu zidan. Arnasa baretu zitzaion. Sukaldera jaitsi eta tea egin genuen. Han pasa genuen gaua, euliek etxea nola hartzen zuten entzuten. Sukaldera sartu zirenean, jertse bana hartu eta, ukuiluan barrena, kanpora atera ginen.

Giltzaz itxi genuen Iriarte Azpikoa. Herriko argiak antzematen ziren han behean.

Opariak

Erretegian oilaskoak jaso eta bagoaz. Hiru aldiz esan diot Trukori ez dela egun egokia, baina gaur behar omen du.

– Ama zain dago –argitu dit.

Hogeita hamasei gradu markatzen ditu termometroak. Eskuan daramatzat ekografiak, urtu beharrean. Inoiz pentsatu izan dut sabelean daramadana ere urtu litekeela, zuria beltzarekin nahastu eta ez dela ezer geratuko: masa gris bat.

Hamar minutu dira Bilbo atzean utzi dugula, eta dagoeneko autoan oilasko-usain beroa zabaldu da. Sudurrera eraman dut eskua baina tripak gora datoz. Lepoa atzera bota eta loak hartzen saiatu naiz, ea azkar iristen garen. 110 kilometro orduko abiaduran goaz Altzaterantz, Trukoren jaiotetxera. Polikiago gidatzen du haurdun nagoenetik. Eta isilik. *Ama zain dago*, ez du besterik esan.

Ekografietako mamuak zakila duela ospatzera goaz Altzatera. Horregatik oilaskoak maletategian.

260 gramoko pisua du fetuak, baina nik irabaziak ditut sei kilo.

Hogeigarren asteko ekografia egitera joan ginenean honela esan zigun erizainak:

– Zakilik ez badu, neskatoa da.

Ohatilan etzanda, burua sabel hanpatuaren parera altxatu eta galdetu nion:

– Munduaren erdia deskartez identifikatu behar ez izateko, ezinezkoa al da ekografia bidez alua bistaratzea?

– Zer?

– Ezer ez.

Eta gero, deskubritu zuenean:

– A, hementxe dago.

Lasaitua nabaritu nion ahotsean, zerbait inportantea aurkitu uste duenaren harrotasuna. Amerika, penizilina, apendize bat nire triparen barruan.

– Kaka –esan nuen.

– Zer? –harritu zen Truko.

– Apustua galdu dut.

Tematu egin baitziren Altzateko izebak.

– Mutila da –esan zuten hirurek batera.

Baserri zaharraren atarian egurrezko aulkietan eserita zeuden, gora begira. Ahizpa gazteenaren

errainak bekainetako ileak kentzen zizkien asteazkenero, eta euren bekokien gainean lehortzen ari ziren piperrei begira esan zidaten: *Mutila da.* Inguratu nintzenerako.

Errainak irribarre egin zuen, eta nik kontra egin nien, nire sabel barrenekoaz nik baino gehiago ezin jakin zezaketela demostratzearren.

– Beti asmatzen dute –abisu eman zidan errainak.

Ordainlekua atzean utzi dugunean galdetu diot Trukori:

– Nahikoa izango al da sei oilaskorekin?

Bekokiko izerdia xukatu eta sorbaldak altxatu ditu. Jasangaitza da oilasko-usaina. Leihatila zabaldu dut, baina paper-fabrikakoarekin nahastu da oilasko-kiratsa. Barruko sapa kanpoko sargoriarekin. Azkar sakatu diot leihoa ixteko botoiari, eta hala geratu gara gure berotan, gure kiratsetan.

Zakilak Trukoren familiakoentzat zer esan nahi ote duen bururatu zait. Urtean behin Errioxako ardandegietara joatea eta, andreek hitz egiten duten bitartean, isilik egotea, hori baino ez zait burura etorri. Eta bat-batean otu zait, beharbada ez dudala gustuko izango nire semea. Lehen aldiz pentsatu dut aukera horretan.

Ataurrean aparkatzerako ikusi dugu «Ongi etorri, Beñat» letra urdinez idatzita duen pankarta, baserriaren atarian alderik alde.

– Beñat hori nor da, preso bat? –esan diot Trukori.

Trukok begirada apartatu eta autotik irteteko imintzioa egin du. Uste dut behin aipatu geniela, agian, umea mutila izatera, bazitekeela Beñat izena jartzea. Akaso. Baina autotik irteten ikusi gaituztenerako saltoka eta *Aupa Beñat!* oihukatzen hasi dira Trukoren ama eta haren hiru ahizpak. Aitak eta bi osabek atzealdeko jarlekutik begiratzen digute. Emazteek koloretako globotxoak astintzen dituzte. Eta atearen alde batera ikurrin bat zintzilikatu dutela ikusi dut; «Gora Beñat!» idatzi du norbaitek gurutze zuriaren marra etzanean. Jasanezina da beroa.

Trukok, nire aurrean, baserriak erakarrita harantz zuzen doan itzal bat dirudi, zaldi fidela, jaiotetxearen grabitate-indarrari ezin itzuri eginda. Gaurkoa zakilfestaz mozorrotutako ongietorri-festa da Altzaten. *Ongi etorri Etxera,* alegia, letra larriz. Haurrak landareak bezala ugaltzea posible balitz, baserri aurreko lur-sailean landatuko lituzkete barrenetxeatar txikiak ernatzeko haziak, hortxe, amonaren errautsak zabaldu zituzten leku berean.

– Kaixo –esan diet–, ekarri ditugu oilaskoak.

Trukok musu eman die amari eta izebei. Saltoka eta txilio txikiak egiten jarraitzen dute. Nahastu egiten dira lauren ahotsak, eta ez naiz hitz bakan batzuk baino ulertzeko gai. Morroskoa. Amona. Opariak. Osabek txapela ukitu eta kokotsa altxatu dute, *zer?* esan nahi duela iruditu zaidan keinu batekin. Trukok kolpe bana eman die bizkarrean. *Dena ondo*, deszifratu dut, txapla-txapla. Hitzik ez. Aitari begiratu dio, elkarri begira egon dira une batez, eta zigarro bana atera dute patriketatik, ataurreko koskan eserita erreko dutena. Ez dakit aita-semeena koreografia sinkronizatua den edo bi astronauta diren planeta arrotz batean, nor bere eskafandraren barruan zigarroa erretzen, zentzumenak kez inguraturik; kea aurki lezaketen beste edozer gauza baino interesgarriagoa den ziurtasun osoarekin. Zigarroak amaitutakoan ere elkarrengandik metro betera eserita jarraitu dute, eguzkitan dantzan dabilen hauts pinportaren bati so. Ez dago jakiterik noiz utzi zioten elkarri hitz egiteari, zein egunetan, zerk bultzatuta, baina argi dago gizonen arteko ituna dela, andreen esne-berriketaren erdian lubaki bat, errespetuzko keinu bat. Etxe honetako gizonen egonarriak zirrara eragiten du benaz; hain daude geldi,

edozein unetan zerbait larria egingo dutela sumatzen baita.

– Zeinen ondo, Añes.

Oilaskoen poltsa eskuetatik kendu dit amak. Eta gero gehitu du:

– Gutxitxo izango da, baina lasai, bada gisatua sobera.

Sei oilasko ekarri ditugu. Bederatzi gara. Termometroa berrogei gradura doa.

– Zatoz –esan dute lau ahizpek batera–, zerbait dugu zuretzat.

Etxera sartu naute. Opariz beteta dago sutondoa, eta bada airean edonor umetzen duen zerbait, gabon giro eternal bat. Begira dauzkat laurak.

– Ireki –agindu didate.

Banekien zer zetorkidan. Hotzikara batek zeharkatu nau. Ez didate begirik kentzen.

– Ea gustatzen zaizkizun. Zurekin pentsatuta aukeratu ditugu.

Ez nituzke ireki behar, baina ez naiz lau ahizpei kontra egiten ausartzen. Eta Truko ez da inon ageri.

Banekien. Esan nion. Horrela hasten da. Opariekin. Trukoren anaien neska-lagunak ditut gogoan. Denak bizi dira baserriaren aldamenean egin dituzten

etxebizitza berrietan ezker-eskuin. Amonaren lur-sailetan eraikitako bizileku modernoetan. Anaiak, errainak, ilobak, denak hektarea beraren barruan. Barrenetxeatar guztiak pilan-pilan, eta haien emazteak. Denak. Haiek opariak onartu zituzten. Etxeko zapatilak, Altzaten eroso egoteko; zetazko pijama, bertan lotan geratzen zirenerako. Hortz-eskuilak, tanpoiak, ileko plantxak. Nahikoa zuten zerbait behin eskatzea, hurrengo bisitan opari-paperez bilduta topatzeko. Haiek onartu egin zituzten, eta intimitate oso bat jaso zuten opari; eta harekin batera zilbor-heste bat, amonaren jaiotetxetik gehienez ehun metro urruntzen uzten diena.

– Gero zabalduko ditut, benetan. Komunera joan behar dut.

Ez dakit zergatik esan dudan *benetan*. Ergela. Komunerako bidean Trukoren bila aritu naiz, baina ahizpen kalaka baino ez da aditzen etxe osoan. Kanpoan geratuko ziren gizonak. Harrigarria zeinen isilak diren. Mutuak ia. Atea kisketaz itxi eta sakelakotik deitu diot Trukori, ahizpen artean ito egiten naizela esango diot, nire ondora etortzeko, eta berak irekitzeko opariak. Baina ez du hartzen. Autoan utziko zuen.

Komunean esertzearekin batera, atzealdeko garbitegi zaharrera ematen duen leihoa ireki eta zigarro bat piztu dut. Kiwi-arbolak, elorri bat eta pikondo gutxi batzuk daude harraska zaharraren aldamenean. Eguna lotuta ematen duen Adi zakurraren txabola. Pikondo baten adar sendoenetik zintzilik zabu bat. Mutiko ilehori bat irudikatu dut Adiri makila tiraka eta pikondoan zabuka, soina luzatu eta behatz-muturrekin adarreko azken pikua ukitu nahian. Aitonarekin kiwiak biltzen eta amonarekin kiwi-marmelada gozoa prestatzen. Askako arrain gorriak eskuekin harrapatzen eta txori-habiak bilatzen. Zoriontsua dirudi.

Zigarrokina komunera bota, kateari tira eta jangelara joan naiz. Lasaiago. Agian arrazoi du Trukok, agian exajeratu hutsa naiz eta lau ahizpak gibel-asmorik gabe ari dira.

– Maitasuna adierazi nahi digute, besterik ez –esan zidan Altzaten izan ginen orain hurrengoan.

Etxe berri haietako bat oparituko zigutela iragarri ziguten kafearen orduan. Astearte buruzuri batean. Eta Trukok ez zuen zirkinik egin. Zer den oparitara ohituta egotea. Amonaren lurrak desjabetu zituztenez, pisu haietako bat omen zegokion biloba bakoitzari,

eta gurea atondu zutela propio hartarako gordetako isileko batzuekin. Giltzak astindu zituzten airean.

– Eskerrik asko –onartu zien Trukok–, baina oraingoz ondo gaude Bilbon.

Oraingoz esan zuen, Bilbon geratzea aspaldi hitz eginda geneukan arren, hipoteka hartzekotan ginen arren, gure semea bilbotarra izango zela ongi murtxikatuta geneukan arren. Eta nik gorrotatu egin nuen nire mutil-laguna. Ahula, pentsatu nuen, biguna. Belaxka.

– Zuek ikusi –esan zuten ahizpek koruan.

Eta autora gindoazela galdetu ziguten:

– Noiz etorriko zarete hurrengoan?

– Laster.

– Gaizki tratatzen zaituztegu, ala?

Ondotxo nekien niri zuzendutako galderak zirela. Ez nien erantzun, ordea. Trukori utzi nion diplomazia praktikatzen.

Eta hementxe gaude berriro.

Jangelara sartu naizenerako eserita daude denak. Nor bere lekuan: andre-gizonak aurrez aurre, Truko izeba ezkongabearen parean eta nire jarlekua harenaren ondoan, ertz batean, mahaian asimetria itsusi bat sortuz. Nire bikotea une batetik bestera iritsiko den

norbait dela ematen du, musu emango didala eta Trukoren aldameneko hutsunean eseriko dela. Presidentzian amona zenaren aulkia dago, hutsik. Zutitu da Trukoren ama eta, orain aulki hutsari begira orain nire tripari, esan du:

– Amona bizi balitz.

Ez naiz gai esateko esaldia baieztapena, desira-perpausa ala mehatxua izan den. Ez dakit atzetik eten puntuak, harridura-ikurra edo puntu eta apartea behar dituen.

– Eseri hemen –lagundu dit gero.

Bere aulkia eskaini dit, bizkarraldean eta ipurdipean bigungarriak dituena. Eskertu diot keinua, bigundu nau ni ere, bai baitakit Altzaten aulki-aldaketak ez direla hola eta hola egiten, baina nahiago betiko lekuan, gonbidatuen aulkian.

– Eskerrik asko –esan diot, eta esatearekin batera giharren bat laxatu zait lepoan.

– Erre egin duzu?

– Ez.

Ezustean harrapatu nau. Sudurra nire ahora gerturatu du. Begira geratu zaizkit denak.

– Bai, erre egin dut, komunean –aitortu dut.

Auskalo zergatik, gizonei begira esan ditut hitzok; ezer erantzungo ez didatela badakidalako, seguruena.

– Papera falta da –jakinarazi diet.

Trukoren ama, oraindik jangelaren erdian zutik, mugimendu zentzugabeak egiten hasi da, zerbaiti, hitzen bati, haizeren bati, belarrondoko bati eusteko ahalegin neurrigabea egiten ariko balitz bezala. Ahoa ireki du, baina ez da handik soinurik atera. Trukok, jaiki eta sorbaldetatik goxo-goxo helduta, bere lekuan eserarazi du ama. Jesarri orduko hasi da entsalada mekanikoki zerbitzatzen, eta Trukok haurdunaldi oso ona izaten ari naizela komentatzeko aprobetxatu du. Joan omen zaizkit hasierako beldurrak. Lehenengo ekografiaren bezperan ohean esan niona kontatu du: beldur nintzela sabela hutsik ez ote neukan. Erizainak pantailan begiratu eta *hemen ez dago ezer* esango zidan beldur. Algara txikia egin du, eta *horrelakoa da Añes*, esan die, eta musu eman dit masailean. Eta gero gauetan lau aldiz pixa egiten dudala salatu die.

– Munduko amarik onena izango da.

Izeba bat altxatu egin da mahaitik.

Eta orduan Trukoren ama mintzatu da:

– Ama, ahoa betetzen duen hitza. Ama batek dena utzi behar du bere seme-alabengatik, ezta, Añes? Ama beti ama.

Ama beti ama, Añes?, galdetu diot neure buruari. Beldurra ematen didate atzean zer ezkutatzen duten ez dakidan esaldiek. Zer da «ama»? Zer da aurrekoz atzera eta atzekoz aurrera berdin-berdina den hitz hori? Zer ote da «dena» Trukoren amarentzat? Eta haren amarentzat? Eta nire ama zenarentzat? Trukoren amonak osasuna utzi zuen. *Hezurrak gastatuta hil da, lan gehiegi egin du emakume honek,* esan omen zien mediku forentseak. Trukoren amak loa uzten du semeari aste osorako otorduak prestatzeko. Gure ama, aldiz, sekula tuperbarerik bete gabe hil zen. Eta sakratua zuen siesta. Margolaria zen, eta beste emakume bati ordaintzen zion etxeko lanak egiteko, gu zaintzeko: bere intimitatea zaintzeko. Hogei urte nituen hil zenean.

– Baldin banoa –murmurikatu zidan ospitalean–, erakutsi behar nizun guztia erakutsi dizudalako da.

Guztia. Dena. Nik gehiago ikas niezaiokeela ziur nekien arren. Baina hark ere *dena* eman zidala pentsatuz hil nahiko zuen.

– Zoparik nahi?

Zerbait baldin bazen, praktikoa zen gure ama. Ez zen inoren zain egon hiltzeko. Baina ezta bizitzeko ere. Bizi garen bezala hiltzen bagara, Trukoren ama zopa zerbitzatzen hilko dela bururatu zait.

Etorri da joan den izeba.

– Amonaren gelako leihoa irekita utzi dudala gogoratu naiz. Ixtera joan naiz –esateaz batera eseri da mahaian.

Lehenengo pisuan dago *amonaren gela*. Zazpi urte dira hil zela, baina oraindik badu *bere gela* etxean, ez dute ezer ukitu ordutik. Han daude arropak armairuan zintzilik, zapatak kaxetan, makulua ohe gainean. Badakit Truko joan izan dela, eta armairua irekitzen duela amona usaintzeko. Badu *bere gela* etxean, eta hartu ere, ez dakit ez ote dituen *berak* hartzen etxeko erabaki garrantzitsuak. Oraindik. Erabaki handiren bat hartu behar den bakoitzean *zer esango luke amonak* esaten baitu ahizparen batek Altzaten. Lur-sail batzuk saltzekotan ziren batean entzun nien; ahizpa gazteenaren semeak nikaraguar bat hartu zuenean bikotetzat; Trukoren anaia zaharrenak Gabonetako menua aldatzea proposatu zuenean. *Ezta pentsatu ere* erantzun bide zuen amonak bere hil-ge-

latik. Eta ez zen Altzaten kontu haiei buruz sekula santan berriro hitz egin.

Bada Trukok hamaika aldiz kontatu didan istorio bat: amonaren errautsei buruzkoa.

Ama hil zitzaienean ahizpak ez omen ziren ados jartzen. Zer egin errautsekin. Gorde. Zabaldu. Non gorde. Non zabaldu. Azkenean sakabanatu egin zituzten. Errautsen erdiak kanposantuan, aitonaren hezurren aldamenean. Ahizpa bakoitzak pixka bat hartu eta lepoan daramaten zintzilikario banatan sartu zituzten. Eta geratzen zirenak Altzateren aurreko haritzaren oinetan eta baserri zaharraren inguruan zabaldu zituzten. Baina, udazkena zer den, haize-bolada batek jo omen zuen errautsak zabaltzen ari ziren momentuan, eta Trukoren galtzetara joan ziren amonaren errautsak, han itsatsita geratu ziren, eta Trukok, zertan ari zen pentsatu gabe, astindu egin zituen bizibizi, eta gauean garbigailuan sartu, handik hiru egunera berriz janzteko.

Bitxia iruditu zitzaidan kontatu zidan lehen aldian, nola banatu daitekeen gorputz bat hil eta gero: erdia hilerrian, pixar batzuk alaben lepoetan dilindan, zati bat baserriko harizpean eta etxearen inguruko zuhaix-

ketan, beste zatitxo bat bilobaren galtzetan, apur batzuk garbigailuan...

– Orain amonarekin hitz egin nahi dudanetan –aitortu zidan Trukok–, ez dut nora joan jakiten. Leku guztietan dago. Eta inon ez.

Oilaskoak ekarri dituzte mahaira, eta beste izeba bat jaiki da. Oin-hotsak entzun dira goiko pisuan, eta hamar minuturen buruan itzuli da opariekin.

– Postrearekin batera irekitzeko –esan du, eta nire aldamenean utzi ditu.

– Amonaz ari ginen –azaldu diote itzuli berri den izebari.

Hark irribarre egin du, eta elkarri begira geratu dira ahizpak.

Gizonek azken oilasko-puskak ahoratu dituzte.

Bat-batean ohartu naiz. Aurpegietan ikusi diet. Bizirik dago. Gezi batek bezala zeharkatu dit burua ideia horrek. Amona bizirik dago bere ohean. Nola izan naiz hain tuntuna. Ahizpei begiratu diet, Trukori begiratu diot, eta ziurtasun osoz jakin dut. Bizi da. Zer dira bestela joan-etorri horiek, Adirentzat omen diren janari-soberakinak, amonaren gela egunero garbitzeko ohitura. Oin-hotsak, leiho zabalduak, etengabe amona aipatu beharra.

Siestatik komunera jaiki nintzen hartakoaz oroitu naiz. Beti itxita egoten den arren, erdi zabalik topatu nuen amonaren gelako atea; garbiketan zebilen Trukoren ama, pasilloan zeuzkan lixibak eta kristal garbitzekoak, eta xurgagailuarekin ari zen. Makinaren burrunbaren azpitik hizketan ari zela entzun nuen; baina inozoa ni, bere baitarako ari zela pentsatu nuen, ama zaharraren oroitzapenarekin. Orain ulertzen ditut otordu guztietako mugimenduak, izeba bat eta gero bestea mahaitik jaikitzen, eta gizon hauen isiltasuna, konplize ahulak, eta Truko. Nola izan da kapaz.

– Ekarri tarta –esan du izeba batek.

– Opariak –beste biek.

Adi izeneko zakur lotuak. Amaginarrebei bekainak depilatzen dizkieten errainak. Airean astintzen diren giltzak. Ikurrinak. Errautsak. *Ireki*.

Magalean jarri dizkidate opariak. Trukok pasatu dizkit banan-banan. Koloretako paperen azpian *B* edo *Beñat* edo *BB* hizkiak brodatuta dituzten pijamatxoak, toallak, txanoak, izara txikiak eta adur-zapiak agertu dira.

Jaiki egin da izebetako bat. Oin-hotsak.

Gero kafea etorri da.

Gizonek zigarroak eta puruak erre dituzte.

Ez naiz zigarroa piztera ausartu.

Topa egin dugu Beñaten alde.

Handik gutxira agurtu ditugu.

Opariak autoan sartu ditu Trukok eta musu eman die banan-banan. Auto barnean eseri eta gerrikoa lotu dut. Atzerako ispilutik ikusten ditut ikurrina eta orain-dik zintzilik dagoen pankarta, eta azpian lau ahizpak besoak astintzen, agurka. Atzean, isilik, hiru gizonak.

Haizea altxatu da. Bagoaz. Bilbok gero eta gertua-go behar luke.

Oreina

Sasoi hartarako ez zegoen Donostiara edo Parisera neskame joateko ohiturarik. Herriko neska asko paper-fabrikan enplegatu ziren gutun-azalak egiten. Zenbaitek negozio txikiak ireki zituzten erdialdeko kaleetan. Eta gutxi batzuk unibertsitatera joaten ziren Letretako ikasketak egitera. Ni salbuespena izan nintzen.

Hirian bizi zen amaren aldeko izeba bat etorri zitzaigun etxera. Emakume dotorea zen, Balentziagarena omen zen mostaza-koloreko berokia erantzi zuena sukaldera sartu orduko. Ama urduri nabaritu nuen janzki hura sarrerako esekitokian zintzilikatzean, bere esku maiztuekin hondatuko zuen beldur balitz bezala. Plastikozko zamauari begiratu azkarra egin zion izebak.

– Klara anderea hilzorian dago –esan zion amari–. Konfiantzazko norbait behar dugu hura zaintzeko.

Hari buruz hitz egiteko moduagatik, Klara andereak amaren izebak baino are dotoreagoa izan behar zuen. Amaren osaba txiki baten arreba zaharrena zen,

margolari sonatu batekin ezkondu eta aspaldi hirira joandakoa. Gazterik alargundua, urte batzuk lehenagora arte bere kabuz ederki moldatu zena.

– Diabetesaren erruz gangrenatu egingo zaizkio zangoak. Tronbopenia dauka, likido-erretentzio handia, gutxiagotasun kardiakoa eta itolarria. Hilabete gutxiko bizia geratzen zaiola uste dute medikuek.

Erpuruarekin eta hatz arinarekin kikara baten giderrari heltzen zion bitartean eman zigun Klara anderearen berri.

– Medikuek ospitaleratzea gomendatu arren, ez dauka etxea uzteko inolako asmorik. Hantxe ditu Estivariz guztiak.

Klara anderearen senar ohiaren abizena Estivariz zela ondorioztatu nuen. Ezaguna izan behar zuen, baina guk ez genekien ezer pinturari buruz. Artistaren heriotza goiztiarraz geroztik (bihotzekoak jota hil zen ezkontza batean) haren margolanen balioak gora egin zuela azaldu zigun amaren izebak.

– Europako hainbat hiritara saldu dira, eta erakusketa eta bienaletatik gero eta eskari handiagoa dago. Klara anderearen bi alabak arduratzen dira Estivariz fundazioa zuzentzeaz. Oso lanpetuta dabiltza. Horre-

gatik behar dute Klara anderea zainduko duen neska arduratsu bat.

Fundazioaren zigilua (paleta bat) zeukan gutun-azala eman zidan eskura. Irekitzeko keinua egin nuen, baina amak geldiarazi ninduen. Izeba dotoreari irribarre neurtua atera zitzaion.

– Aurrerapen bat besterik ez da. Hor dagoena baino gehiago ordainduko dizute astero, eta lana ondo eginez gero ez dira zekenak izango eskupekoekin.

Zutitu egin zen. Amak berokia ekarri zion.

– Ondo baderitzozu –esan zion amari–, bihar eguerdian deituko dizut erabakiaz galdetzeko. Lana onartuz gero astelehenean bertan etorriko naiz bila.

Atea itxi zuenean amak eskutik kendu zidan gutun-azala. Atalondoan bertan ireki zuen aspaldi sumatu ez nion urgentziaz.

– Onartu egin beharko dun –aholkatu zidan.

Astelehenean aurreko asteko beroki bera soinean zuela iritsi zen amaren izeba. Hark lagunduko zidan Donostiara eta Klara anderearen bi alabekin elkartuko nintzen. Haiek emango zizkidaten jakin beharreko xehetasun guztiak.

Maleta kalera jaisten lagundu zidan amak.

– Beste bat arte –agurtu zuen izebak.

– Zaindu –musu eman zidan amak.

Donostia gure herritik ordu erdi eskasera zegoen arren bi aldiz baino ez nuen egin bidaia hura aurrez, moja-eskolatik txangoan eraman gintuzten batean eta aitari giltzurruna erauzi ziotenean. Edertasun haren azpian zer mugitzen ote zen, horrek jakin-mina sortu zidan hasieratik, hiriari beroki dotorea kendu eta ese-kitoki arrunt batean zintzilikatzeko gogoa zen. Auto-busak Amaran utzi gintuen, eta Urumea ertzetik oinez egin genuen Klara anderearen etxerainoko bidea. Fundazioaren egoitza eraikin bereko etxabean zego-en. Antigoalekoa eta dotorea iruditu zitzaidan ataria; makineria agerian zuen igogailu bat zegoen parez pare, eta egurrezko eskudel zabala zeukan eskailera. Ezkaratzean bertan eskuinean zegoen ate bat zabaldu zen orduan, eta ilea gorriz tindaturik zuen emakume batek diosal egin zigun.

– Aurrera! Zu zara Begoña, beraz.

Segituan hurbildu zen beste ahizpa ere. Harrituta gelditu nintzen; amaren izebaren antzeko emakume apain eta tenteak espero nituen nik, baina bi ahizpa haiek, nire amaren adin bueltakoak izan behar zuten

arren, erabat bestelako itxura zuten. Ile gorri-gorria zuen batek, eta more antzekoa besteak. Aurrerago jakin nuen kolore hari borgoina deitzen zitzaiola. Garaiak eta hezurtsuak ziren. Ehun estanpatuekin egindako blusak eta galtza estuak zeramatzaten soinean. Amaren izebari eskerrak eman, eta hark berehala alde egin zuen. Ni zutik gelditu nintzen, alde guztietara begira, horma zurietako margolanei eta altzariei. Bulego argitsuaren ertzean zegoen besaulki batean esertzera gonbidatu ninduten bi ahizpek. Ilegorriak hirurontzako tea zerbitzatu zuen, edari hura dastatzeko propio eginak izan bide zuten urre-koloreko edalontzi luzexka batzuetan. Hura izan zen tea edan nuen lehen aldia.

– Segituan ezagutuko duzu ama –jakinarazi zidaten.

Klara anderearekin harreman ona zutela iruditu zitzaidan, burugogorra eta autoritarioa zela abisu eman zidaten arren.

– Agintzeari uzten dion egunean larrituko gara benetan.

Barre egin zuten. Gero nire lanerako jakin behar nuen guztia azaldu zidaten.

– Ez da ia mugitzen eta ez du zipitzik entzuten. Alemaniatik ekarri genizkion kaskoak jantzita ikusten

du telebista ikaragarrizko bolumenez. Kuluxka asko egiten ditu. Egongelan ematen du egun osoa; beraz, lasai ibili ahal izango zara etxean. Otorduak prestatu beharko dizkiozu, eta besaulkiaren ondoko mahaitxoan utzi. Ez zaio jaten duen bitartean inor begira egotea gustatzen. Erosketa astelehenero uzten diote atean. Jaso eta antolatu besterik ez duzu egin behar. Komunera kostata baina bere kabuz jaikitzen da, asko larritzen bada bakarrik eskatuko dizu laguntza. Normalean zikindu egiten du, arazoak ditu esfinterren kontrolarekin. Egongelara itzultzen denean garbitu beharko duzu. Ilusioa egiten dio markoetako argazkiak noizbehinka aldatzeak, salako mahaitxoan lore freskoak izateak eta aita zenaren margolanak egun osoz ondo argiztatuta mantentzeak. Eskura behar ditu beti ura, egunkaria, telefonoa eta telefono-zenbakiak apuntatzen dituen agenda. Hori da bere munduarekiko lotura; entzumen-galera handia duten pertsonentzat bereziki prestaturiko aparatua du. Argia egiten du deiren bat jasotzean, eta gortzeko moduan entzuten da bestaldeko ahotsa; etxearen beste puntatik ere adituko duzu. Egunero hitz egiten du izeba Enriketarekin. Botikak sukaldeko mahaiaren eskuineko tiraderan dituzu, nola eman azaltzen duen taula hantxe bertan

itsatsita daukazu; uretan edo ahabi-zukuan disolbatu behar dizkiozu. Ez du jakin behar ematen dizkiozunik, ezkutuan medikatzen dugu. Erortzen bada, zorabiatzen bada, arnasa nabarmen larritzen bazaio edo denbora askoren bueltan lo jarraitzen duela ikusten badu-zu, deitu guri lehenbailehen.

Ohar batzuk jaso nituen koaderno txiki batean.

– Gauak ez dira errazak. Gaizki lo egiten du. Hasperen asko egiten du, oso ozen. Gorputza mintzen zaio eta ez da gauza ohean posturaz aldatzeko. Okerren egon den egunetan berarekin gaua pasatzen geratu izan gara, baina posturaz aldatzen lagundu arren ez zitzaion ondoeza joaten. Gainera, 90 kiloko pisua du, eta ez da erraz maneiatzen. Ez du garabiarekin mugi dezagun nahi. Ezin da ezer egin. Amaiera gogorra tokatu zaio. Gorputza hondatu zaio burua baino lehen. Ea ez zaion sufrimendua alferrik luzatzen. Goizero ohetik jaikitzen lagundu beharko diozu. Indartsua dirudizu. Pardelarekin egiten du lo, baina ez dio dena xukatzen. Egunero izarak aldatu eta kito.

Galdera bakarra egiten ausartu nintzen:

– Noiz etortzen da medikua?

– Uko egin dio etxeko zaintzari. Ez du gehiago ziztatu dezaten nahi. Bakean hil nahi du. Horretan lagundu behar diozu.

Beste te bat zerbitzatu zidaten eta Veneziara egin behar zuten bidaiaz mintzatu ziren alaiki. Biharamunean bertan abiatzekoak ziren. Negozio inportanteak egiteko ustea zuten eta, ulertu nuenez, borgoina-koloreko ilea zuen ahizpak maitale italiarren bat zeukan hirian zain. Bekaizkeriaz irentsi nuen listua.

– Hori bakarrik ekarri duzu? –galdetu zidaten sarreran neuk utzitako maleta seinalatuz–. Goazen... ama zain daukagu.

Klara anderearen etxeko ateak hiru sarraila zituen. Goitik behera ireki zituzten, eta sartu orduko ikusi nuen. Alabek azaldu bezala, egongelako besaulkian eserita zegoen telebistari begira, belarrietan aurikularrak jantzita. Ez zen biratu atea itxi genuenean. Ilegorriak egongelako sarrerako etengailuari eragin zion behin eta berriz, sabaitik zintzilik zegoen armiarmako argia sarritan piztuz eta itzaliz. Begiratu egin zigun. Irribarre zabala egin zuen eta hortzordea handiegi geratzen zitzaiola ohartu nintzen, emakume mardula zen arren argaldu egingo zen azken makalaldian.

– Hola! –esan zigun kaskoak erantzi bitartean–. Ongi etorri.

Eskerrik asko esan eta bi musu emateko makurtu nintzen. Ingurura begira harrapatu ninduen.

– Artea gustatzen zaizu?

Urduritu egin nintzen. Ahal nuen moduan erantzun nion eskolan gutxi irakatsi zigutela.

– Margoak ikustea gustatzen zait, baina ez dut artea estimatzeko gaitasunik. Oso politak dira hemen dauzkazuenak.

– Aja –ez zuen besterik esan.

Mingainari kosk egin nion, hanka barruraino sartu izanaren sentipenarekin. «Polita» ez zen izango emakume hark bere senar ohiaren obrari buruz entzun nahiko zuen balorazioa. Irainduta sentituko zen. Zorionez, zerbait entzuten ez zuen bakoitzean «aja» esaten zuela azaldu zidaten ahizpek.

– Ozenago hitz egin behar diozu, eta aurpegira begira.

Amari kokotsetik heldu zion nola zuzendu behar nintzaion erakusteko. Hortzordea erakutsi zigun berriz. Askatu orduko burua telebistara itzuli zuen.

– Orain zure gela erakutsiko dizugu, eta moldatuko zara zure kasa. Guk bidaiarako soinekoak prestatzera joan behar dugu.

Klara andereak kaskoak jantzi zituen. Saio kultural bat ikusten ari zen. Maleta hartu zidan ahizpetako batek.

Etxe handia zen. Sukalde ederra zuen, eta lehen begiratuan bost gela eta bi bainugela jo nituen begiz. Korridore amaierako atea zabaldu zuten.

– Hemen lo egingo duzu. Aldamenekoa da amaren gela.

Ohartu nintzenerako ama agurtzen ari ziren bi ahizpak. Despedidan oihu eginez gogoratu zien Klara andereak:

– Ez ahaztu Veneziatik titare bat ekartzea!

Maleta desegin eta egongelara itzuli nintzenerako lo zegoen Klara anderea. Zurrunga txikia eta etena egiten zuen. Etxea miatzeko aprobetxatu nuen. Halakorik ikusi gabea nintzen. Gela bakoitza kolore batez margotuta zegoen: goroldio-kolorea, teila, itsas urdina, beilegi iluna... Sabaiak zuriak ziren, baina hormen kolore bereko mendelak eta apaingarriak zituzten lanpa-

ren inguruan. Margolanak zeuden etxe osoan. Egongelako horma lau metro eta gehiagoko mural bat zen, arrantzaleak ikusten ziren identifikatzen asmatu ez nuen portu batean. Motibo kostunbristak agertzen zituzten koadro askok: gizonak karta-jokoan edo ardoa edaten, emakume baserritarrak igitaiarekin lanean, nekazari-giroko famili bazkariak... Natura hilak ziren beste zenbait, paisaia batzuk ere ikusi nituen, ametsetako airea zuten zaldi zuri batzuk ere bai... Baina zirrara handiena margolan erlijiosoek eragin zidaten. Klara anderearen logelan, oheburuaren aurrez aurre, Jesus gurutze-bidean ageri zen koadro handi bat zegoen, bizkarra zamatuta ikusten zen Jesus, odol- eta izerditantak isurian. Inpresio handiena Kristo haren aurpegierak egin zidan, oinazearen eta plazeraren arteko keinu hark, arantza-koroaren azpian.

Nire logelako margolanak atseginagoak ziren zorionez: Klara anderearen bi alaben jaunartzeko erretratuak zeuden alboz albo zintzilikaturik, eta ahizpetako bat –zein ez dakit, umetan biek zuten-eta ile gaztainkara– txikia zeneko beste bat ere bai, baloi koloretsu baten aldamenean eserita ehoziri-lanez apaindurikо zaia handiarekin. Koadrora hurbildu nintzenean, azaleko margoaren azpian, orein baten silueta antze-

man ahal izan nuen, margolariak iritziz aldatu eta urdin ilunez estali zuena.

Klara anderearentzako afaria prestatzeari ekin nion, eta neuk ere zerbait jan nuen, ez bainuen mokadurik probatu etxetik irten nintzenetik. Lapikoa sutan utzi eta oraindik lo jarraitzen ote zuen begiratzera joan nintzen. Ahoa zabal-zabalik egiten zuen zurrunga, burua besaulkian atzeratuta. Mahaitxoan utzitako kaskoetatik garbi aditzen zen telebistaren kalaka.

– Si tuviera los dedos largos tocaría el piano...

Argilunetan zegoen egongela. Margolanen gaineko fokuak baino ez zeuden piztuta, hormako muralaren kolore berdea gailentzen zen, eta Klara anderearen gaztetako potret bat. Telebistaren argiak emakume zaharraren gorputzean proiektatzen ziren. Bigungarridun banketa batean bermatuta zituen zango puztuak. Moreak ziren belaunetaraino, gorriak belaun bueltan eta zuritu egiten zitzaizkion izterretan. Orratz batekin ziztatuz gero lehertu egingo zirela ematen zuen.

– Begoña! –oihukatu zuen.

Jauzi txiki bat egin nuen. Ez nintzen ohartu esnatu zenik.

– Ekarri afaria.

Korrika joan nintzen sutan nuen barazki-saldaren bila. Xerra bat frijitu nion. Jakiak eta ur-pitxerra erretilu batean paratu eta besaulkiaren ondoko mahaitxora eraman nizkion.

– Eskerrik asko.

Sukaldean egon nintzen egongelako soinuei adi, Klara andereak afaria noiz amaituko zain. Bukatu zuela uste izan nuenean hurbildu nintzaion.

– Gustatu zaizu?

– Aja.

– Postrerik nahi duzu? –galdetu nion ozenago.

– Ez, ekarri oinetarako krema. Komuneko armairuan dago, goitik hasita bigarren tiraderan.

Bainugelara bidean, Klara anderea oinetan krema zabaltzeko gai izango ote zen egin nuen neure kabutarako. Ezetz pentsatu nuen. Neuk eman beharko nion. Amaren oinak nazka eragiten hasi zitzaizkidan garaiarekin akordatu nintzen. Ume txikia nintzela gogoko nuen amaren oinekin jolastea; kili-kiliak egiten nizkion eta ozen barre egiten zuen berak. Gauetan sofan etzaten zenean behatz lodia gorantz tenkatzeko zuen manerak grazia egiten zidan.

«Gustura zagon hire ama», esaten zidan aitak behatz lodia seinalatuz.

Aitaren boligrafoarekin aurpegiak marrazten nizkion mamietan.

Gero, amaren oinak ukitzeari utzi nion. Lagunen gorputzek amarenak baino jakingura handiagoa eragiten zidaten. Hamabi urte izango nituen ama, podologoaren aginduz, zapatak baztertu eta espartinak eta eskalapoiak erabiltzen hasi zenean. Gauetan, sofan etzaten zenean, oinak olioz igurzten zituen eta kuxin baten gainean pausatzen. Era eskandalagarrian itsustu zitzaizkion. Juanikoteez gain kailuak zituen behatzen gainaldeetan, zoletan eta orpoetan eta, haiek bigundu nahian, baratxuri txikituarekin egindako enplastuz biltzen zituen oinak.

Higuina ezkutatzen saiatu nintzen egongelara krema-potoarekin itzuli nintzenean.

– Bendak askatu behar dizkidazu, kremarekin igurtzi eta gero berriz lotu, ahalik eta gogorren.

Aldi hartan hormako arrantzale gazteei begira igurtzi nizkion oinak, baina azkar egin nintzen zainketa hartara ere, behatz bakoitzaren forma, testura eta neurria buruz ikasteraino.

Lehen gauetan ez nuen begirik bildu. Bizkarra oheburuan bermatuta igarotzen nituen orduak, atzarrik, Klara anderearen hasperen bakoitza azkena izan

ote zen zalantzan. Hainbatetan jaiki nintzen korridorera eta atalondotik luzaz zelatatu nuen ahoz gora zetzan gorputz hura. Ordutan negarrez aritu izan balitz bezala hartzen zuen arnasa, zizpuru unatuak eta bafada sakonak txandakatzen zituen behin eta berriz. Txizaren usaina sudurzuloetan mikatz.

Laugarren gaua izango zen hasperen haiek tanpez azkartzen sumatu eta izututa agondu nintzenean. Auhen ozen batek esnatu ninduen. Klara anderearen gelara sartu nintzen. Esku batekin kamisoiari oratzen zion erritmikoki puzten eta uzkurtzen zitzaion bularraren parean. Beste eskutik heldu nion.

– Zoaz ohera, ume! –garrasi egin zidan.

«Entenditzea ohitzea dun», erantzuten zuen gure amak, zerbaiti buruz «ez dut ulertzen» esaten nion bakoitzean. Ni ere ohitu egin nintzen gorputz haren soinuetara, koloreetara, usainetara. Ahur eta ganbiletara. Titareen bildumari hautsa kentzen nion arruntasun eta arreta berberaz garbitzen nion ipurdia, igurzten nizkion bularrak. Hasieran bera bakarrik saiatu zen eginbehar intimo haietan, goiz batean nekeak ahituta dutxako eserlekuan lo aurkitu nuen arte. Sorbaldara

erortzen zitzaion ura. Sabela nabarmenki puzten ikusi ez banio, hila zela pentsatu izango nuen.

Nik garbitzen nuenean ere bakarrik balego bezala jokatzen zuen: ez zidan hitzik egiten eta dutxa-itxituran iltzatzen zuen behakoa. Oztoporik jarri gabe egiten uzten zidan. Nik eskatu aurretik altxatzen zuen ukalondoa besapea xaboiz marruska niezaion, edo zabaltzen zituen izterrak belakiari tokia egiteko.

Giza gorputz zahartu eta hondatuak sortzen zidan kuriositatea ahalkea eta nazka baino indartsuagoa zela ohartu nintzen. Dutxatzen nuen bitartean Klara anderearen pubiseko ile luze eta grisei begira egoten nintzen, nola hedatzen zitzaizkion izterretara eta zilborrean gora, eta nola etzaten ziren ur-txorrotaren azpian.

– Ni ere Veneziara joan nintzen Jose Antonio hil zenean.

Kulero beixen gainean altzo-txakurren marrazkiak zituen txabusina lotzen ari nintzaion.

– Veneziak eta ardoak ahazten laguntzen dute. Harrizko dekadentzia eramangarriagoa da haragizkoa baino. Ez dut uste itzuliko direnik.

Isilik gelditu nintzen. Telebista-saio batetik oroitzen nituen gondolak. Ilea orraztu nion.

– Gose naiz –esan zuen–. Egidazu tortilla frantsesa askaritarako.

Klara anderearen haragian barruraino hondoratzeak, gorputz arrotz batean sartzeak, sukalde batean sartzen den bezala, nire gorputzari beldurra galtzea eragin zidan. Inoiz ez dut desioa bizi izan Klara anderearen etxean igaro nituen egunetan bezain bortizki. Emakume zaharraren zokoak zabaltzeak eta usnatzeak, haragi hura igurzteak, zanpatzeak, estutzeak, mugitzeak eta zaintzeak egokitasunaren soineko guztiak zartarazi zizkidan. Ez nuen margolari baten musa izatearekin fantaseatzen. Ordura arte ikusi eta, batez ere, begiratu ez nituen nire gorputz-atalak ezagutzeko premiak mugitzen ninduen. Orduak eman nituen logelako zutikako ispiluaren aurrean nire besapeei, belaunen atzeko aldeari eta, batez ere, aluari begira. Nolakoak ziren jakin nahi nuen zehatz-mehatz. Nola jokatzen zuen haragi zati bakoitzak. Zer zuen eskaintzeko. Hatzak usnatzen nituen zirrikituetatik bueltan. Dastatzen nituen garratz mihian. Ikusi nuen gorria beltzean, begiratu nuen punpaka ispiluan. Harrituta itxi nituen hankak.

Ostiralez, Klara anderea gosalondoko kuluxkan utzita, egongelarako orkidea bat erostera irten nintzen. Pozik eta artega esnatu nintzen, lehen aldiz ibiliko nituelako hiri bateko kaleak beste inoren konpainiarik eta zaintzarik gabe, etxetik loradendara arteko tarte laburrean bazen ere. Beti mototsean bilduta eramaten nuen ilea askatu eta orraztu nuen. Eta, zalantza eginagatik, ispilupeko tiraderan gordetzen zituen ezpainetakoetatik bat hartu nion Klara andereari. Ukitu doi bat egin nuen beheko ezpainean eta ia margoa ezabatu arte igurtzi nuen goikoaren kontra.

Ezezagunez beteriko festa bateko gonbidatua sentitu nintzen kalean. Auto bateko gidariak klaxona jo zidan, etorbidea ez zegokidan lekutik zeharkatzen hasteagatik. Barkamena eskatu nion euskaraz eta ondoren gaztelaniaz, baina ezin izan nuen poza disimulatu. Zetazko soineko bati begira egon nintzen erakusleiho batean. Petalo zuriak eta ardoaren koloreko bihotza zuen orkidea bat hautatu nuen loradendan, eta atseginez aditu nituen lorazainak landarearen zaintzari buruz eman zizkidan argibideak. Kalearen beste aldeko tabernetan basoerdiak edaten ari ziren gizon gazteak eta helduak. Kalaka bizia aditzen zen. Ilea harrotu eta bizkarra zuzendu nuen dendatik irten

aurretik. Begiratuak sumatu nituen gibeletik. Orduan izan zen. Buelta hartu eta etxepe bateko eskaileretan kafea hartzen eta zigarro bat erretzen ari zen mutilarengana jiratu nintzen. Ez nuen ez berorik ez hotzik sentitu harengana hurbildu ahala, determinazioa baino ez.

– Prim kaleko 51.ean bizi naiz. Zatoz, nahi baduzu, bederatziak eta erdietan.

Beste norbaiten oinetan itzuli nintzen Klara anderearen etxera. Korrika igo nituen eskailerak. Arnasestuka ari zen sofan, kaskoak belarrietatik kendu gabe. Berbena belarra egosi nion. Kuxin bat jarri nion bizkarraldean. Tipula zatitu eta besaulkiaren ondoko mahaitxoan utzi nion plater txikian. Orkidearentzat ontzi egoki bat bilatu eta leiho ertzean ipini nuen, eguzkiak zeharka emateko moduan.

– Ez dira iritsiko –entzun nion bazkaria egitera sukaldera erretiratu nintzenean.

Enriketarekin ari zen telefonoz. Eguerdietan deitzen zion.

– Ez diet ezeren errurik egozten. Badakite non utzi behar duten titarea.

Aparatua eskegi zuenean egongelara itzuli eta aldamenean eseri nintzaion. Eskutik heldu nion.

– Ez du inporta.

Hortzeria handiegia erakutsi zidan berriro.

Arratsaldean izarak lixatzen aritu nintzen. Bi aldiz dutxatu nuen Klara anderea, sendatzen asmatzen ez genuen beherakoaren erruz. Ez nuen xaboirik erabili, azala gorritu eta harrotu egiten baitzitzaion. Gorputzeko kremarekin lurrindu nuen. Goiz oheratu zen, ez zuen afaldu nahi izan. Barruko arropa zikinak eskuz garbitu eta bainugela desinfektatu nuen.

Ordulariari begira jan nituen Klara anderearentzat prestatutako leka-zopa eta tortilla frantsesa. Dutxatzeko astia izan nuen, zorionez. Bederatziak eta laurdenetan atarira jaitsi nintzen. Eskaileretan eserita eta zigarro bat erretzen ari zela ikusi nuen mutila.

– Igo.

Azalpenik eman gabe logelara eraman nuen eta arropak erantzi nituen. Hitz egiten hastera, ez nukeen zer esan asmatuko. Bizkarra hormaren kontra bermatuta begira gelditu zitzaidan, izututa alde egingo zuela iruditu zitzaidan une batez. Ez pentsatzea erabaki nuela gogoratzen dut. Bakarrik nengoenetan egiten nuen bezala, armairuko atea ireki nuen ispilua bistaratzeko eta ez nintzen mugitu mutila erabat biluztu zen arte. Helduagoa zen arroparik gabe. Bular eta sabelal-

de iletsuak. Aurpegi zurbila. Airea zulatzen zuen zakilak. Ez nuen gehiago ikusi. Ez nuen gehiago entzun.

– Eman buelta.

Bere jabearekin bat ez datorren ahots horietakoa zuen. Eskuak horman bermatu eta besoak tenkatu nituen. Mutilaren bularreko bilo sarriak hotsa egiten zuen nire bizkarraren kontra. Burua atzeratu eta Klara anderearen bi alaben jaunartzeko erretratuak begiratu nituen. Ehoziri-lanez egindako zaia jantzita zuen umea, haren baloia, eta azpian... oreina.

Mutilak alde egin zuen. Margo urdin ilunaren azpian antzematen zen siluetari begira gelditu nintzen hazia lehortu zen arte. Lo-kuluxka egin nuen. Jantzi eta izarak aldatu nituen. Klara anderearen gelako gauargia piztuta zegoela konturatu nintzen. Apenas hartzen zuen arnasarik. Eskua altxatzeko keinua egin zuen ate ondoan burkoarekin ikusi nindunean. Argia itzali nuen. Azken irudia: Jesus gurutze-bidean. Plazeraren eta oinazearen arteko keinu hura.

Su txikian

– Eseri hor, mesedez. Baso bete ur?

– Ondo nago honela, eskerrik asko.

– Tira. Badakizu zertara ekarri zaitugun.

– Pena da.

– Zeri buruz ari zara?

– Erabat lehortua dago fikus hori. Gaizki sentitzen naiz landareak ihartzen uzten dituzten lekuetan. Bota egiozu niretzat atera duzun basokada ura. Hobeto sentituko naiz.

– Lizarralde anderea, zure senarraren heriotzaz hitz egin behar dugu.

– Gaizki atera da dena, kontu gehiago izan behar nuen.

– Zer da oker joan dena?

– Bakarrik utzi dut azken unean. Ez zen nire asmoa.

– Tori.

– Ez, ez dut negarrik egingo. Luzerako daukagu?

– Norabaiterako presa duzu?

– Tomas ikusi nahi nuke.

– Zure senarra gorputegian dago autopsiaren zain.

– Autopsia egingo diozue?

– Haren heriotza argitu behar dugu. Horretarako zaude hemen.

– Ez da autopsiarik behar. Oso sinplea da dena. Sinplea izan behar zuen.

– Amalia Ibarzabal ezagutzen duzu?

– Jakina, auzokoa dut betidanik.

– Zer harreman duzue?

– Ona, bizilagunen artekoa, landareak ureztatu izan dizkiot uda partean. Askotan utzi behar izaten du etxea semeagatik. Preso dago Arlesen. Batzuetan liburuak eta urdaiazpikoa ematen dizkiot harentzat. Badakit debekatuta dagoela kartzelara jatekoa sartzea, baina urdaiazpiko pixka batengatik... Uste dut Amaliak blusaren azpian gordetzen duela.

– Ibarzabal andereak deitu digu. Beranduegi, tamalez.

– Bai, nire errua da. Barkatuko ahal dit.

– Zer da Amalia Ibarzabalek barkatu behar dizuna?

– Amaliak ez. Tomasek. Zergatik ez ote dut...

– Lizarralde anderea, uste duzu zure senarra gai zela bere buruaz beste egiteko?

– Ez.

– Zergatik?

– Elbarria da.

– Pilulak har zitzakeen.

– Ez dugu botikarik hartzen.

– Tetraplegikoa zen, ezta?

– Paraplegikoa, gerritik behera.

– Nolatan?

– Kotxe batek harrapatu zuen.

– Pozoiren bat har zezakeen, bere buruari gaindosia eragin.

– Ez zuen halakorik nahi.

– Nola dakizu?

– Batak bestearen berri genuen, kontu guztietan.

– Orduan, zer motibo izan zezakeen? Depresioak jota zegoen? Arazo larriren bat zeukan? Diru-kontuak?

– Ondo zegoen; inoiz baino lasaiago, esango nuke. Ez dugu gastu handirik. Baina nolabait bukatu behar da, zaharrak gara, egin ditugu egitekoak. Zu gaztea zara oraindik; zer dituzu, berrogei urte?, berrogeita hamar?

– Beraz, seguru zaude bere buruaz beste egin duela.

– Bai.

– Bere asmoen berri eman zizun...

– Autoan egitea erabakita geneukan.

– Elkarrekin prestatu zenutela esaten ari zara? Bere buruaz beste egiten lagundu badiozu, hori erailketa litzateke. Zure senarra hil duzula aitortzen ari zara?

– Nola pentsa dezakezu halakorik? Ez, ez diot nik lagundu. Elkarrekin prestatu genuen, biok batera amaitzeko. Baina bakarrik utzi dut. Barkatuko ahal dit!

– Lizarralde anderea. Dena kontatu behar didazu.

– Ari naiz.

– Amalia Ibarzabalek goizeko hamaika eta erdietan deitu digu zure senarra autoan hilda topatu duela abisu emateko. Txirrinetik deitu omen dizue, baina zabaltzen ez zenutenez garajeko atetik sartu omen da, irekita izaten omen duzue.

– Tomasek han lan egiten du: itsasontzien maketak. Egun osoa ematen du garajean sartuta. *Amerigo Vespucci* fragata bukatu du asteon. Belaontzi ederra, *Amerigo Vespucci*. Benetakoak hiru mila eta berrehun metro koadro haize-oihal zituen. Asko da hori. Tomasek kontatzen dizkit halako gauzak: bidaiarien kontuak, hondoratzeenak, kortsarioenak. Nik ez dut aben-

tura-libururik irakurtzen. Livornokoa omen zen *Amerigo Vespucci*, Toskanakoa.

– Zergatik ez diozu Amalia Ibarzabali atea ireki txirrina jo duenean?

– Belarriko aparatua jarri gabe neukan.

– Ez duzu aparatua egunero ipintzen?

– Jauna, esan dizut. Tomasek eta nik prestatuta genuen... eta ez, ez dut aparatua ipini, ez zait beharrezkoa iruditu gaur goizerako.

– Hiltzeko?

– Hala esatea nahiago baduzu...

– Eta elkarrekin buruaz beste egiteko asmoa bazenuten, zergatik ez zeunden zu autoan goizeko hamaika eta erdietan?

– Ez naiz etxekoandre ona. Ez naiz inoiz izan. Ez dakit nola moldatzen diren besteak, niri gogoa bestetaratzen zait beti. Horrek sutan jartzen du Tomas.

– Non zeunden goizeko hamaika eta erdietan, Lizarralde anderea?

– Goian, sukaldera igo naiz. Autotik irten eta sukaldera igo naiz. Tuntun halakoa.

– Damutu egin zara.

– Ez. Oso seguru nago. Baina dilistak sutan utzi ditudala gogoratu naiz. Su txikian utzi ditut goizean eta erabat ahaztu ditut gero.

– Inozoa naizela uste duzu, Lizarralde anderea?

– Ez, jauna.

– Zertara dator orduan dilisten kontu hori?

– Alaba bazkaritara etortzen da ostegunetan eta dena prest utzi nahi nion. Alabarekikoak ondo zaintzen saiatzen naiz. Erdi zorabiatuta nengoela gogoratu naiz dilistekin. Garunaren mekanismoren bat izan behar du, jauna. Narrazioetarako ideiarik onenak ere justu loak hartu aurretik bururatzen zaizkit beti. Eta gero jaiki beharra, kamisoi hutsean, hozteko ere...

– Idazlea zara?

– Idazle-idazlea... ez, baina argitaratu izan dizkidate istorio batzuk, ez oso txukunak hala ere. Alice Munro, hori bai amona distiratsua, eta gure adinean. Gu, zera, ikasketarik ere ez dugu-eta.

– Zure buruaz beste egitera zindoazela dilistekin akordatu eta asmoa bertan behera utzi duzula sinetsarazi nahi didazu.

– Halaxe izan da. Egosten utzi ditut eta alaba ez da ordu bi eta erdiak arte etortzen. Ez naiz moldatzen presio-eltzearekin, dena lehortzen zait. Etxea erre zi-

tekeela pasatu zait burutik. Garretan ikusi dut. Gure betiko etxea. Nire ordenagailua, eskuizkribuak, Tomasen maketak. Ez dugu askoz gehiago oinordetzan uzteko. Familia xumea gara, jauna.

– Eta senarra hiltzen utzita atera zara autotik?

– Itzultzeko asmoa nuen. Amalia agertu ez balitz...

– Zuen alaba bisitan etortzen den egunean suizidatzea pentsatu zenuten.

– Badakit horrela esanda ankerra dirudiela, baina oso ondo pentsatuta geneukan. Dena gutun batean azalduta utzi diogu. Begira, ez da beste inor etortzen aste osoan eta, agian tontakeria irudituko zaizu, baina ez genuen nahi..., kiratsa eta deskonposizioa... Inoiz ikusi duzu ahaztutako hilotzik? Harrigarria da astebetean nola hondatzen den giza gorpua.

– Badakit, bai.

– Ahalkea izango da, baina, jauna, ez genuen egunetan egon nahi autoaren barrenean, nork, noiz eta zer egoeratan aurkituko gintuen jakin gabe. Alabak ezagutzen gaitu, uste dut gehiago harrituko litzatekeela eskailburuan behera amilduta absurdoki hilko bagina, edo aldaka hautsita. Erorikoetan hiltzen omen da zaharrik gehien.

– Eta Amalia Ibarzabal zertara joan da zuen etxera?

– Gure alabarentzat pakete bat ekartzera.

– Zergatik izan behar zuen berak zuen alabarentzako pakete bat?

– Zergatik konplikatu ote da dena...

– Paketea. Zergatik zeukan Amalia Ibarzabalek zuen alabarentzako pakete bat?

– Banatzaile batek bere etxean utzi omen du. Ez nion entzungo hari ere. Gure alabak arropak erosten ditu Internetetik.

– Baina zuekin bizi da?

– Ez, esan dizut, ostegunetan etortzen da.

– Eta zergatik ez ditu paketeak bere etxean jasotzen?

– Lanean egoten delako. Ordu asko sartzen ditu. Dioenez, gauzak ez daude txantxetarako. Arkitektoa da. Zorionez, hark baditu ikasketak. Jauna, zenbat denboran egon beharko dut hemen?

– Nola izena du zuen alabak.

– Ane.

– Ane Agirre-Azaldegi?

– Bai, marratxorik gabe, dena batera, letra xehez.

– Ez du axola.

– Urduri jartzen naute ortografia-akatsek.

– Esadazu, gaur goizean esnatu zarenetik ertzainen patruila zuen etxera iritsi den arte zer egin duzu?

– Gosaldu. Egunkaria irakurri. Jantzi. Bazkaria prestatu.

– Xehetasun guztiak nahi ditut, Lizarralde anderea.

– Goizeko sei eta erdiak inguruan esnatu gara.

– Zure senarra ere bai?

– Ohe berean egiten dugu lo.

– Tira, jarraitu.

– Oraindik eguna argitu gabe zegoen. Ia beti esnatzen ginen egunsentia baino lehen. Zahardadea txarra da, badakizu?, lo egiten ere ez dizu uzten. Tomas pozik zegoen, eta ni ere bai. Esan nahi dut ez geneukala beldurrik eguna iritsi zelako. Maiatzaren 22a.

– Zerbaitegatik?

– Elkar ezagutu genuen eguna da gaur, eta Tomasen urtebetetzea.

– Gaur egiten zituen urteak?

– Laurogeita sei.

– Noiztik zeneukaten zeuen buruaz beste egiteko asmoa?

– Aspalditik, hilabeteak izango dira eguna hautatu genuenetik. Elkarrekin hiltzeko ideia ez da inoiz arrotza izan dena den, beti aipatzen genuen, baina txantxetan bezala, jolas erromantiko bat zen... Beti haserretzen nintzen Tomasek ni baino lehenago hilko zela esaten zidanean. Zaharragoa zela eta huraxe zela naturalena, zenbat aldiz kontu horrekin. Halakorik ez aipatzeko eskatzen nion, eta barre egiten zidan. Bandido arraioa. Gorpu hotz bat besarkarazten bazidan ez niola sekula barkatuko, halaxe esaten nion, halakorik egiten bazidan neuk akabatuko nuela bigarren aldiz. Eta begira. Sartre eta Beauvoir bezala, azkenean.

– Zer esan nahi duzu?

– Jean-Paul Sartre eta Simone de Beauvoir. Idazleak ziren. Bost hamarkada elkarrekin eman ostean (gorabeherekin, baina nork ez du gorabeherarik?), zahartzaroan elkarrengandik urrundu ziren. Sartre itsututa zegoen eta oso hondatuta; nire ustez horregatik apartatu zen. Ez da erraza norberaren dekadentzia inorekin konpartitzea. Telebistan oso polit aurkezten dute dena, baina gernu-jarioak, hortzordeak, orbanak. Zaila da maitasuna edo dena delakoa garbi mantentzea, jauna. Azken zazpi urteetan ez zuten kasik elkarren berririk izan. Baina Sartre biriketako edemak jota

hil zenean Simonek bisita egin zion ospitalean, eta esan ohi da Sartrerekin, haren gorpuarekin, sartu zela ohean.

– Asko haserretzen zineten?

– A ze galdera. Zer da asko? Ez dakit, jauna. Beste guztiak bezala. Esan izan dizkiogu izugarrikeriak elkarri. Nik gehiago Tomasi berak niri baino, ez naiz tenple handiko pertsona. Horregatik idazten dudala uste dut, gauzei bere denbora emateko. Amorrua paperean etzateko. Oporretan haserretzen gara, batez ere. Etxean nork bere txokoa dauka, ez diogu elkarri traba handirik egiten. Afizio isilak ditugu biok, eta horrek ere laguntzen du. Italiara egin genuen bidaian egun oso bat eman genuen muturtuta. Uste dut egoista nazkagarri bat zela esan niola. Nazka-nazka egin ninduen, bai. Eskerrak gidak hitz egiten zuen! Fulvio izena zuen, estimatzen dira berbalapiko horiek halakoetan, ez pentsatzen laguntzen dute. Ponpeiako hondakinak erakutsi zizkigun, zita-etxea, vomitoriuma, anfiteatroa... Eta Tomas isilik. Ez dakizu nolako bekozkoa jartzen duen gontzetatik ateratzen denean. Ibilbidearekin jarraitu genuen turista saldoaren erdian. Sugarrek estalita elkar besarkatuta hil zen bikoteari begira geratu ginenean, eskua eman zidan.

– Jo al zintuen inoiz?

– Ez.

– Mehatxatu?

– Ezta ere. Gizon orekatua da, orekatuegia zenbaitentzat. Haserretzen denetan isildu egiten da, egun batzuetarako sarritan, baina gutxien espero duzunean hasten da hizketan berriz, garrantzirik gabeko kontuez beti. Esne-berriketan. Ez da batere oldarkorra. Gure amak esango luke ez dela gizon-gizona. Barkuen maketak egiten ditu. Esan dizut *Amerigo Vespucci* fragata bukatu duela asteon?

– Zer egin duzue gaur goizean esnatu ondoren?

– Sukaldean eseri gara. Ogia xigortu dut Tomasi gustatzen zaion moduan, ekonomikaren gainean. Egunkaria irakurri dugu elkarrekin, Tomasek izenburuak eta nik letra txikia. Bista hobea daukat. Kafea edan dugu eta irratia entzun dugu pixka batean, goizeko magazina. Gero dilistak prestatzeari ekin diot. Tomasek gurutzegrama egin du, osorik. Asko poztu da.

– Hiltzera bazindoazten, zertarako halako interesa notiziekiko?

– Goizero egiten dugu: jaiki eta irratia piztu. Oherakoan itzaltzen dugu, gaueko partea bukatu ondoren.

– Gaur, itzali duzu?

– Ez nuke jakingo esaten.

– Etxera itzultzeko asmorik ez bazenuen, normalena irratia itzaltzea izango da, ezta?

– Bai. Baliteke itzali izana. Gainera, begira, irratia piztu ez bagenu ez nuen jakingo Igor Cozarri eman diotela Euskadi saria. Mezu bat bidali diot zoriontzeko, asko lagundu izan dit nire ipuinekin. Inportanteak dira kolega batzuk ofizioan.

– Egiaztatuko dugu. Eta gero?

– Tomasi lagundu diot dutxatzen, eta bizarra egiten zuen bitartean bainua hartu dut nik. Kantatu egin du bizarra egiten ari zen bitartean; aspaldi ez nion aditzen.

– Zer abestu du?

– Garrantzitsua da?

– Ez. Oraingoz ez. Zergatik ezkutatu nahi duzu?

– Ez zen, nola esan, oso abesti aproposa okasiorako. Seminarioko kanta bat, apaizei buruzko trauskilkeria bat.

– Kantatu.

– Beharrezkoa da?

– Kantatu, Lizarralde anderea.

– *A la vera de un convento había un cura cagando...*

– Tira, nahikoa da.

– Esan dizut.

– Eta gero?

– Jantzi egin gara, arropa txukun samarrekin, bioi iruditzen zitzaigun egokiena. Tomasi zapata berriak erosi nizkion astelehenean. Elbarritu zenetik etxeko zapatilekin edo kirola egitekoekin ibiltzen da beti, ez zaizkio batere hondatzen beti geldirik egonda. Baina larru beltzezko batzuk erosi nizkion. Bitxia da, oina izugarri txikitu zaio. Betiko neurrikoak erosi nizkion, baina elbarritu zenetik uzkurtu egin zaio oina, bi taila bai. Estu lotu behar izan dizkiot.

– Noiz idatzi duzue alabarentzako gutuna?

– Duela bi aste.

– Bi aldiz izan da zuenean bazkaltzen gutun hori idatzi zenutenetik?

– Bai. Joan den astean Maddirekin etorri zen, bilobarekin. Aste hauetan ukitu batzuk egin dizkiot gutunari. Maniak, ezin testu bat bukatutzat eman.

– Uste duzu alabak bazuela zuen asmoen susmorik?

– Ez.

– Eta jantzi ondoren, zer egin duzue?

– Zaborra atera dut, sukaldea garbitu eta sua jaitsi diet dilistei. Hori izan da dilistekin akordatu naizen azken aldia. Gutuna mahai gainean utzi dut, tulipa batzuen ondoan. Ane jaio zenean ere tulipak izan nituen etxean. Gero garajera jaitsi gara.

– Eta nola egin duzu?

– Aurrena Tomasi lagundu diot autora sartzen.

– Gidariaren tokian?

– Ez, kopilotuarenean. Berak gidatzen ez duenez beti joaten da aldamenekoan. Gainera, berak ezingo luke arrankatzeko pedala zapaldu.

– Zergatik zapaldu behar zuen pedala? Ez al zen nahikoa autoa ralentian jartzea?

– Bai, bai. Esan nahi dut nik gidatzen dudala beti. Ez zait burutik pasatu Tomas gidariaren aulkian eseraraztea.

– Jarraitu.

– Mangera hartu dut, ihes-hodiari lotu diot eta atzeko leihatilara eraman dut beste muturra. Autoan sartu naiz. Motorra abiarazi aurretik musu eman diot Tomasi, eta eskerrak eman dizkiot denagatik. Berak irribarre egin du eta «Aurrera!» esan dit. Beti esaten du horixe autoz bidaiaren bat egitera goazenean.

Arrankatu egin dut, ralentian, eta eskua eman diot. Loak hartzen ninduela sentitu dut, ez tunelik eta halakorik, logura gozo bat baino ez. Eta bat-batean dilistekin akordatu naiz.

– Tomas hilik zegoen zu atera zarenerako?

– Ez dakit.

– Ez duzu begiratu?

– Gora ahalik eta azkarren igo, sua itzali eta segituan jaisteko asmoa nuen.

– Tomasek laguntza eskatuz gero, inork adituko al zion?

– Bozina jo izan balu, baietz uste dut.

– Zenbat denbora igaro da zu autotik atera eta Amalia Ibarzabal garajean sartu den arte?

– Minutu batzuk, ez dakit... Zorabiatuta nengoen eta eskaileretan eseri behar izan dut unetxo batez. Sukaldean nengoela sartu da espantuka, ez naiz oharTu gain-gainean izan dudan arte.

– Egiazta dezakezu Tomasek bere buruaz beste egin nahi zuela?

– Gutuna nik idatzi dut, baina biok sinatu dugu. Hitz gutxikoa da.

– Bere buruaren jabe zen?

– Guztiz.

– Egiazta dezakezu hori?

– Goizeko gurutzegrama sukaldean gelditu da. Ez luke edonork osorik egingo, lanak izango nituzke neuk ere. Hilabete osoko aleak egongo dira sarrerako komodan, egunero egiten zituen denbora-pasak, gurutzegramak eta sudokuak.

– Zaude. Une bat. Gisasola, autopsiaren berririk? Ados. Jauregi eta Gomez itzuli dira? Ongi. Froga dezatela gutuneko sinadura Tomas Agirreazaldegirena dela. Dena batera, bai. Eta ekar ditzatela etxean aurkitzen dituzten egunkari guztiak. Ongi. Bai. Amalia Ibarzabal hemen da? Oraintxe. Lizarralde anderea, bukatu dugu oraingoz.

– Tomasen ondora itzul naiteke?

– Gorputegian dago, esan dizut. Laster amaituko dute autopsia.

– Ikusi egin nahi dut.

– Agente batek lagundu beharko dizu.

– Ez naute une batez bakarrik utziko?

– Arauak dira. Sentitzen dut, Lizarralde anderea. Nire doluminak.

Idazleak azken hurrupa eman dio infusio epelduari. Old Towneko argi ahulak sartzen dira leihotik. Irakurtzeko betaurrekoak erantzi eta ohikoak jantzi ditu. Eserita egon da ordenagailua itzali zain. Igor Cozarri bidali dio ipuina; estimatuko dio iritzia, zalantzak ditu egiturarekin, traba egiten diote dialogoetako gidoiek, baina editoreak «zerbait freskoa» idazteko aholkatu zion bildumaren tonu orokorra konpentsatzeko. Komunean kendu du hortzordea eta ileko sarea kokatu du. Garbantzuak beratzen jarri ditu ohera aurretik, biharamunean eskuz esku bazkalduko baitu alabarekin. Goizeko hegaldian iritsiko da. Aurpegiko krema eman eta kamisoia jantzi du argilunetan. Zabal etzan da ohean. Orain askoz hobeto egiten du lo.

Ezertan lagun diezazuket?

Eguna argitu gabea zen Albeniz anderea itzartu zenean. Senarrari begiratu zion, lo zegoen. Bezperan aukeratutako arropak aulkiaren bizkarretik jaso eta komunean jantzi zen. Zalantza egin zitzaion ezpainetakoa eskuan zuela. Nezeserrean sartu zuen berriro. Zapatak hautatu zituen, takoi baxukoak. Kafe-makina italiarraren tapa ireki zuen sukaldean, ez zen tantarik geratzen. Poltsa eta maleta hartuta irten zen etxetik. Zazpietako albisteak entzun zituen autoan. Ez zuen pilaketarik aurkitu Malmasinen, sarria izan arren trafikoa. Hiriaren sarreran gorri zegoen semaforo baten aurrean margotu zituen ezpainak. Euro bat eman zion goizero paperezko mukizapiak eskaintzen zizkion gizonari. Ohi baino lehenago iritsi zen lantokiko aparkalekura. Eskaileretara jo ordez autoen sarbidetik gora egin eta bufete pareko taberna txikian eskatu zuen kafea.

– Egun on, Abaitua –esan zion platertxoaren gainean kikara azkar laga eta aterantz zihoan gizon gorbatadunari.

– Egun on –erantzun zion gizonak hotz samar, eta lantokira joaten ikusi zuen Albeniz andereak.

Kafe-kikara eskuan, egunkari lodi baten orriak pasatu zituen. Tokian tokiko albisteei eta politika sailari eman zien denbora apur bat, baina, segituan, egunkaria itxi eta kikara platertxoan laga zuen.

Kalea zeharkatu bitartean abokatu-txartela bilatu zuen maletan eta, sarrerako gizonari diosalak eginda, irakurgailutik pasatu zuen. Igogailuan iritsi zen seigarren pisura. Karpeta urdina bilatu eta hiru folio atera zituen, eta idazkariari eman zizkion haren mahaira iritsi orduko.

– Lau kopia, mesedez.

Kristalezko ate automatikoa ireki zitzaion eta sarrerako esekitokian zintzilikatu zuen jaka. Telefonoz hizketan edo ordenagailuetako pantailei adi zeuden lankideen artetik abiatu zen bere mahaira.

– Egun on, andrea –esan zion ezpain moreak zituen emakume gazte batek–. Ezertan lagun diezazuket?

– Barkatu?

– Zure alde ezer egin dezakedan, andrea.

– Barkatu... –zalantza egin zitzaion Albeniz andereari.

– Itziar.

– Barkatu, Itziar, baina hau nire lekua da.

– Zer?

– Nire lekuan zaudela. Berria al zara hemen?

– Barkatu, andrea, baina nahastu egin zara.

– Albeniz anderea –zuzendu zion Albeniz andereak.

– Barkatu, Albeniz anderea, baina nahastu egin zarela esango nuke. Nahi baduzu idazkaritzara lagunduko dizut.

Albeniz andereak ingurura begiratu zuen. Han zeuden bere aulkia eta ordenagailua.

– Badakizu hori nor den? –xaguaren alfonbratxoa seinalatu zion.

– Ez dut ideiarik, andrea.

– Unai.

– Ez dut ezagutzen.

– Jakina ez duzula ezagutzen. Nire iloba da.

Emakume gazteak begirada apartatu zuen Albeniz anderearengandik.

– Barkatuko duzu, baina lan handia dut –esan zion.

Albeniz andereak idazmahaiaren gainean pausatu zuen maleta. Erretiratu eta lurrean laga zuen gero.

– Karlos –deitu zion bere mahaiaren aldameneko-an telefonoz ari zen gizonari.

Itxaroteko keinua egin zion hark eskuaz. Sakelako-ari kokotsarekin eutsiz, oharrak hartzen ari zen paper-mutur batean. Albeniz andereak itxaron egin zuen. Te-lefonoa eskegi bezain laster esan zion:

– Karlos, azalduko diozu, mesedez, neska honi oker dagoela?

Unairen erretratuaren ondoan bermatu zituen es-kuak.

– Barkatu, andrea, nor zara?

Eskuak mahaitik apartatu eta gonari beherantz tira zion Albeniz andereak.

– Karlos, ez adarrik jo.

Gizonak hobeto begiratu zion.

– Ez naiz konturatzen, andrea. Beste argibideren bat eman beharko didazu.

– Karlos, Marta naiz, zure lankidea.

Karlos izeneko gizonak Itziar izeneko emakumeari begiratu zion. Ondoren, zutitu eta esku bat jarri zion sorbaldan Albeniz andereari.

– Gaizki-ulerturen bat dago hemen, andrea. Guk –eta *guk* esan zuenean alboko emakume gazteari be-

giratu zion– ez dugu Marta izeneko lankiderik. Seguru zaude bufete honetan lan egin izan duzula?

– Hemen lan egiten dut!

– Ezinezkoa da.

Albeniz andereak makurtu eta esku urduriekin ireki zuen lurrean zetzan maleta. Karpeta mordoa atera zuen. Ilobaren argazkiaren aldamenean zabaldu zituen.

– 156/10; 71/08; 1685/11... –zerrendatu zituen boz gora.

Fitxetako bat pasatu zion Karlosi.

– Eta hau zer?

Fitxari gainbegiratua eman zion Karlosek:

– Zer da hau?

– Ez duzu gogoratzen?

– Ez.

– Elkarrekin ari ginen kasu honetan. Ziur geunden irabaziko genuela.

Karlosek mahai gainera itzuli zuen fitxa.

– Albeniz anderea, hau ez da zure lekua. Zoaz, arren.

– Baina...

– Zoaz edo poliziari deitu beharko diogu.

Albeniz andereak karpetak jaso eta maletan sartu zituen. Abokatu gazteari begira, xagua apartatu eta alfonbratxoa hartu zuen, hura ere maletan gordetzeko. Zuzendariaren bulegora abiatu zen pausaje irmoz, baina azken unean komunerantz egin zuen norabidez aldatuta. Sabela estutzen zion gonaren kremailera askatu ondoren sartu zen betiko komunean, ezkerretik hasita bigarrenean. Komun-ontziaren gainean eseri zen. Betiko pegatina zegoen atean itsatsita, urteek zati bat ezabatu zioten arren, Albeniz andereak memoriaz osatu zuena: «Arazo bat nuen eta abokatu bati deitu nion. Orain bi arazo ditut». Terbasmina atera zuen maletatik eta bi zupada eman zizkion. Zorabio txiki bat sentitu zuen, baina segituan pasatu zitzaion.

Komunetik irten baino lehen ispiluan begiratu zion bere buruari. Blusa esku-ahurrekin lixatu eta gonaren kremailera itxi zuen. Hamabi urte zeramatzan ispilu hartan bere isla ikusten. Zin egingo luke ispilua gehiago aldatu zela bera baino. Hantxe konpondu ohi zuen makillajea etxera berandu itzuli aurretik, lepoaldea urez busti, eta lurrin-tanta bat isuri, Ivesen usaina –ez ordea oroitzapena– gainetik kentzearren.

Hormako botikina zabaldu zuen. Larrialdietarako gordetzen zuen Tanpax paketea ikusi zuen goiko apa-

lean. Eskuetan hartu zuen eta berriro laga zuen lehengo lekuan.

Ilea pixka bat apaindu eta Ivesen bulegora abiatu zen. «Ives Barinagarrementeria» irakurri zuen plakan. Barinagarrementeria. Abizenez deitu ohi zion larrua jotzen zuten bitartean, eta ahoan ebakitzen zitzaion abizena, arnasa bezala. Nagusiaren konfiantzazko abokatua zen, maitalea izateaz gainera. Ongi kostata lortu zituen bai bata eta bai bestea. Hatz-koskorrekin jo zuen atea. Lehenengo kolpe bat, hiru jarraian. Atea ireki zuen.

– Ives.

– Bai? –begiak pantailatik kendu gabe erantzun zion.

– Ives –errepikatu zuen Albeniz andereak goxo.

Betaurrekoen gainetik begiratu zion nagusiak. Albeniz anderea haritz-egurrezko idazmahaira gerturatu zen.

– Esan, bai –kasu egin zion ilea urdintzen hasitako gizonak.

– Ives.

– Bai?

– Ives! –Albeniz anderea idazmahaiaren aurreko aulkian eseri zen.

– Zer behar duzu, andrea?

– Ezin dut sinetsi.

Ivesek begiak altxatu zituela ikusi zuen Albeniz andereak. Burua jiratu eta ezpain moredun emakume gaztea ikusi zuen atearen markoan bermatuta.

– Zer gertatzen da, Itziar? –galdetu zuen Barinagarrementeria jaunak.

– Emakume honek hemen lan egiten duela dio –erantzun zion airoski–. Lekua kendu omen diot.

Azken esaldia irribarrez esan zuen, atetik nagusiaren idazmahaira astiro-astiro hurbildu bitartean. Ipurmasail bat pausatu zuen idazmahaian, Barinagarrementeria jaunaren eta Albeniz anderearen artean.

Nagusiaren erantzunaren zain geratu zen Albeniz anderea. Magalean kokatu zuen maleta, eskuak maleta gainean.

– Zera... –hasi zen Barinagarrementeria jauna.

– Marta.

– Zera... Marta...

– Ives, benetan, ez nauzu ezagutzen?

– Marta, zer gehiago?

– Marta Albeniz, Ives!

Albeniz andereari dardara egin zion kokotsak. Aulkiari atzerantz bultzatu eta zutitu egin zen.

– Hau duzu, beraz, urdanga berria?

Ezpain moredun emakumearengana hurbildu zen.

– Esan, Ives, honek miazkatzen dizu orain izterrondoko orbaina? –oihuka ari zen Albeniz anderea–. Honek esaten dizu orain lasaitzeko? Ez daukazula horren txikia?

Apur bat durduzatu zen Barinagarrementeria jauna, baina eztarria garbitu eta emakume gazteari hitz egin zion:

– Deitu segurtasunekoei, Itziar.

Ipurmasaila mahai gainetik apartatu gabe, nagusiaren telefonotik bertatik deitu zuen.

Albeniz andereak emakume gaztearen bularrei begiratu zien zenbakia markatzeko burua makurtu zuenean. Ez zuten akatsik.

– Noiztik? –galdetu zion Ivesi.

Emakume gazteak telefonoa eskegi zuen eta idazmahaiaren atzealdean zutitu zen, Barinagarrementeria jaunaren aldamenean. Elkarren ondoan zutik egon ziren segurtasuneko bi agente iritsi ziren arte.

– Eraman ezazue –agindu zien.

Hitzik esan gabe heldu zioten beso banatatik. Albeniz andereak bularraren kontra estutzen zuen male-

ta, bi agenteek lankideen artetik aterantz arrastaka zeramatela.

– Nire jaka –esan zien esekitoki albotik igarotzean.

Besoa askatu zion bi gizonetako batek, jaka hartzeko. Besteak gogor heltzen zion besondotik. Albeniz andereak ilea txukuntzeko aprobetxatu zuen. Kristalezko ate automatikoa zeharkatzean idazkariaren aurretik igaro ziren, igogailuan sartu baino lehen. Beheko solairuan kalera bultza egin zioten.

Eguzki beteko eguna zegoen. Albeniz anderea autoen sarbidetik joan zen aparkalekura. Martxan ipini eta hiriaren irteerara gidatu zuen Jesusen Bihotzetik barrena. Ez zegoen ia trafikorik, goizeko hamaiketako seinaleak entzun zituen irratian. Garajean laga zuen autoa. Takoi baxuko zapatak erantzi zituen atarian. Eta bazkaria prestatzen hasi zen, senarra goseak iritsiko baitzen lanetik.

Distopia literarioak

Zaharra baina merkea zen egoitza. Aspaldi eraiki zuten, garai hobeak ezagututako ingeniaritza eskola baten ondoan, erdigunetik etxadi pare batera. Mojen ardurapean zegoen, hirian ikasle fededunik apenas gelditzen zen arren.

«Zure kide berria», esan zidan moja hezurtsu batek, nire gelako atea kask-kask jo eta erantzuteko tarterik eman gabe ireki zuenean.

Neskaren betaurrekoei erreparatu nien; nireen oso antzekoak ziren, pixka bat argiagoak, ezti-koloreko armazoi lodikoak. Handik urte batzuetara ikasleen artean boladan jarriko ziren itxura antigoaleko betaurreko handiak, sasoi hartan egunkaria irakurtzeko ohitura zuten agureek janzten zituztenen modukoak. Neskak, nire adin berekoa izanagatik, presbizia eta miopia zituen, foku biko kristalak zerabiltzan.

Gelan sartu zenean, ez zitzaidan iruditu ni ezagutzeko irrika berezirik zuenik. Diosalik egin gabe, libre zegoen ohearen gainean utzi zuen larruzko maleta txikia. Hasperen baten konpasean eseri zen. Nekatuta zi-

rudien. Nire liburuen apalari begiratu zion une batez, baina ez zuen deus esan.

– Gauez argiak traba egiten badizu, ez dut irakurriko –harrera atsegina egin nahi izan nion.

Onarpenezkoa edo gaitzespenezkoa zen esaten asmatu ez nuen keinu bat egin zuen. Ez zuen maleta desegin. Ekarri bezala gorde zuen armairuan. Ilea txukundu eta alde egin zuen supituan.

Afaritan nesken artean bilatu nuen, baina ez nuen aurkitu. Patiora irten nintzen zigarro bat erretzera. Berrehun ikasle inguru bizi ginen egoitzan, askok bigarren edo hirugarren urtea genuen bertan. Gutxitan gertatzen zen ikasturtea hasiz gero neska berriren bat sartzea, berriki hirira aldatutako atzerritarrak izaten ziren normalean. Gauero bezala, loak garaitu ninduen arte aritu nintzen irakurketan. Ordu txikitan esnatu nintzen lepoko minez. Lurrera eroritako liburua jasotzera makurtu nintzenean jabetu nintzen aldameneko ohea desegin gabe zegoela. Harritzekoa, mojek gaueko hamar eta erdietan ixten baitzituzten egoitzako ateak; doi-doi iristen nintzen asteazkenetan, ikasleentzat programatzen zuten arratsaldeko emanaldira joaten nintzenetan.

Hurrengo eguneko iluntzean ikusi nuen berriro, unibertsitatetik bueltan. Ohean eserita topatu nuen belauna belaunaren kontra. Ikusi nindunean lihozko txabusina jantzi zuen barruko arropa zuriaren gainean.

– Martina –aurkeztu nuen nire burua.

Bostekoa luzatu nion.

– Joana –esan zuen.

Bere aldeko apalategia liburuz goraino bete zuela ohartu nintzen. Lurrean kartoizko bi kaxa zeuden, artean hustu gabe.

– Atzerritarra zara?

– Probintziakoa –ez zuen esan nongoa zehazki.

Egoitzan ikasturtea hasi eta bi hilabetera sartzearen arrazoiaz galde egin nion.

– Aitonarekin bizi nintzen hiritik gertu. Astebete da hil dela. Haren anai-arrebek etxea saltzea deliberatu dute.

– Sentitzen dut.

Ez nion galdetu nola moldatzen zen egoitza ordaintzeko, ezta gaueko ibilerez ere. Zerbaitek esaten zidan hobeto moldatuko ginela galderarik egiten ez banion.

Hurrengo egunean entregatu behar nuen iruzkina idaztera eseri nintzen. Joanaren arnasots isila aditzen nuen nire atzean; gelan katu bat sartu balidate bezala, presentzia txiki eta diskretu baten ziurtasuna neukan nigandik gertu. Egiaz toki txikia hartzen zuen Joanak, poliki eta tentuz mugitzen zen, horretan ez zuen probintziakoa ematen. Gau hartan ez ginen afaltzera jaitsi. Uste baino gehiago korapilatu zitzaidan testua eta Joana ez zen gose. Ez zuen apetitu onekoa izateko itxurarik, hezur eta azal zegoen.

– Zeri buruzkoa da? –galdetu zidan.

– Distopia literarioak.

Ez ninduen gehiago molestatu. Ez dakit zenbat denboraz aritu nintzen lanean. Amaitu nuenean, ohe zabaldu gabearen gainean lo zegoela ohartu nintzen. Barruko arropa infantil hura bakarrik zuen soinean. Tapaki batekin estali nuen.

– Martina!

Begiak ireki nituenean besoa leunki astintzen ari zitzaidan.

– Zer gertatzen da?

Segundo batzuk behar izan nituen begiak iluntasunera ohitzeko. Lauak eta hogei markatzen zituen irratiak. Joana izerditan zegoen. Lotarakoan ez nuen sareta jaitsi eta azal zurbilak distira egiten zion kanpoko farolen argitan.

– Benoit atzetik dabilkit.

Agondu egin nintzen. Gau-argia pizteko imintzioa egin nuen baina geldiarazi egin ninduen:

– Ez!

Kalera begiratzen zuela ohartu nintzen. Jertsea jantzi eta leihora hurbildu nintzen.

– Hortxe dago? Auto beltz bat ikusten duzu?

Ezezkoa esateko zorian egon nintzen, baina lorategiaren atzeko kalean aparkatuta antigoaleko auto beltz bat begiztatu nuen. Nengoen lekutik ez nintzen gai barruan inor ba ote zegoen bereizteko. Joanarengana itzultzekoa nintzen autoaren argiak piztu zirenean. Ingeniaritza eskolaren alboko zubitik barrena urrundu zuen.

– Joan egin da.

Joanak aurpegira eraman zituen eskuak. Ur pixka bat eskaini nion.

– Nor da tipo hori?

Banekien su-etenaren ostean ere jendea atxilotzen ari zirela, gazteak batik bat. Pisuetan ezkutatzen ziren, baserri abandonatuetan. Joanak ez zuen ordura arte ezagutu nituen militanteen trazarik, baina mozorroa izan zitekeen. Horrek azalduko zukeen egoitzan egun batetik bestera agertu izana, bezperako gaueko irtenaldi klandestinoa, diskrezio erabatekoa.

– Polizia da?

Harrituta begiratu zidan.

– Ez, ezta pentsatu ere.

Azalpenen zain gelditu nintzen. Gelan alde batera eta bestera hasi zen oinez, irtenbideren baten bila.

– Zer nahi du zugandik?

Barre-zantzoka hasi zen bat-batean, eskuaz ilea nahasten zuela. Betaurrekoak erantzi eta airean astindu zituen.

– Ideiak! Ja!

Gorputz txikia intsektu ornogabeen moldez tolesten zitzaion.

– Ideiak! –barre zoroa egin zuen–. Baina denbora pixka bat behar dut, egun bat, bi...

Lehenera etorri zen, lumazko ahotsa berreskuratu zuen. Txabusina jantzi eta ohean eseri zen.

– Zuk joan behar duzu nire ordez.

– Nora? –ez nuen ezer ulertzen.

– Badakizu idazten, ezta? –esan zidan zerbait leporatu nahiko balit bezala–. Liburuak ikusi ditut: Proust, Nemirovski, Txekhov, Zola, Duras... Idatzi egiten duzu?

– Bai –onartu nuen, eta aitortza hura egin nuen lehenbiziko aldia zen.

– Benoitek gustuko izango zaitu. Ikusi zintudan unean bertan jakin nuen. Gaztea zara, talentua duzu, nabaritu egiten zaizu.

Egoa hestegorritik gora nola igotzen zitzaidan sentitu nuen. Auto beltzarekin oroitu nintzen, nola zeharkatu zuen gaua leihora hurbildu nintzenean.

– Nor da Benoit delako hori?

– Editorea.

Boligrafo bat atera zuen poltsatik.

– Bihar gauean da hitzordua. Hamarretan puntuan helbide honetara joan behar duzu –papertxo bat eman zidan–. Ez duzu editore hoberik aurkituko. Unibertsitatean ez dizute erdirik ere irakatsiko, bost axola zaie literatura. Ikusi duzu inoiz irakurtzen duen bitartean haserrea zainetara igotzen zaion irakaslerik? Poemak arbelean izkiriatzean izerditzen al da funtzionario horietako bakar bat ere? Ez, ezta? Ez dizute deusetara-

ko balio. Ikusi zaitut ezpainak hozkatzeraino amorratzen, *Bai mundu berria* nobelako pasartea kopiatzen zenuen bitartean. Ez zara afaltzera jaitsi. Gosea, bakardadea, sumina! Horra hor literaturaren hiru zutabe behinenak!

– Ez didate sekula ezer argitaratu.

– Eta nori axola dio horrek? Ni literaturaz ari naiz.

Eskuak hartu zizkidan bereen artean.

– Hartu atseden. Biharko prest egon behar duzu.

Ohean sartu zen. Katu-arnasa berriro. Loak hartu zuen. Goizean hizketalditxo bat izan behar genuela erabaki nuen, kontu asko argitu behar zizkidan.

Baina goizean ez zegoen Joanaren arrastorik. Ohea eginda zegoen. Apaletan jarraitzen zuten liburuek. Armairua zabaldu nuen: han zegoen maleta; itxitura bikoitza askatu eta tapa altxatu nion. Arropaz beteta zegoen: lihozko beste bi txabusina, barruko arropa zuria, blue-jeansak, artilezko jertse marroia.

Nazkatzen hasita nengoen hainbeste misteriorekin. Ordulariari begiratu nion, zortzi eta erdiak ziren. Mugitu beharra nuen, ordubete baino lehen entregatu behar nuen idazlana.

Eskoletan, irakasleen jardun monotonoa sekula baino hilagoa suertatu zitzaidan. Ikaskideei begiratu nien. Apunte absurduak hartzen zituzten denbora azkarrago kontsumi zedin. Joanaren hitzak kolpeka nituen buruan. *Gosea! Bakardadea! Sumina!* Hirian ezagutzen nuen inor ez zen gisa hartan mintzatzen.

Ama ikustera joan nintzen bazkalondoan. Jostailudenda baten atzean kokatutako jostun-tailerrean lan egiten zuen; eskualdeko azken brodatzaileetako bat zen.

– Nolatan zu hemen? –poztu zen.

Musu eman nion, eta aspaldi haren haragia ukitu gabe nengoela konturatu nintzen. Bero zuen masaila.

– Ikusi egin nahi zintudan.

Kafea hartu genuen elkarrekin, eta artilezko txano bat oparitu zidan, «belarriak ez hozteko». Amak, aitak ez bezala, gustuko zuen nire ile laburra, askeago egiten ninduela esaten zuen. Sorbaldetaraino iristen zitzaidan adats gaztainkara moztu nuenean, «Polit hagoela pentsatuko dun» errieta egin zidan aitak eta bi astez egon zen niri hitzik egin gabe. Nire partez aitari musu bat emateko esanda agurtu nuen ama.

Ibaiertzetik itzuli nintzen egoitzara. Plataneren hosto iharrak oinpean hautsi gabe tolestu zitzaizkidan

parketik igarotzean. Lo-kuluxka bat egitea lortu nuen. Esnatutakoan haserretu egin nintzen Joana oraindik falta zelako. Benoiti buruz hitz egin ziezadan nahi nuen, zer suposatzen zen esan behar niola ikusten nuenean, zer erantzun behar nion Joanari buruz galdetzen bazidan, zer zen papertxoak seinalatzen zuen tokian zehazki egin behar nuena.

Afalaurretik irtetea erabaki nuen, iluntzeko emanaldira zihoazen ikasleekin batera. Boligrafo bat eta koaderno bat sartu nituen poltsan, oharrak hartzeko erabiltzen nuena. Astia soberan nuenez, alde zaharreko tradizio handiko taberna batean sartu eta uxuala eskatu nuen. Lasaitua eragin zidan bezero gehienak bakarka edaten ari zirela ikusteak.

Kalerakoan Joanak emandako papertxoa atera nuen patrikatik. Leku hura hiriaren beste muturrean zegoen. Autobusa hartzea deliberatu nuen. Jaitsi bezain pronto pare bat urteko haurra sorbaldan lo zeraman emakume beltz bati galdetu nion helbideaz. Hiru etxadi harantzago joan behar nuela azaldu zidan. Auzo soila zen, garaiera ertaineko etxe gris eta apaindurarik gabeek osatua. Fabrika-itxurako bi eraikinen artean zegoen bilatzen nuen ataria. Txirrina jo eta zain gelditu nintzen.

Ilea motots estu batean bilduta zeukan emakume luzanga batek ireki zidan atea.

– Aurrera –esan zidan, deus galdetu gabe.

Korridorean barrena nindoala, bizkarrean aditzen nuen haren takoi-hotsa. Aldagela bateko atea zabaldu zidan. Lihozko txabusina bat eman zidan plastiko garden batean bilduta.

– Eranzten zarenean, zoaz areto nagusira horko ate horretatik.

– Mila esker.

Aldagelako kakoetan arropa gehiago zeudela ikusi nuen. Gonak, galtzak, galtzerdiak, blusak. Barruko arropa zuria. Erabat erantzi nintzen eta txabusina jantzi nuen. Aurpegia ur hotzez igurtzi nuen konketan.

Korridorea liburutegi itzela zen, bi aldeetan garaiera izugarria hartzen zuten apalek. Aurrera egin nuen ate zabal baten ondoan «areto nagusia» irakurri nuen arte. Hatz-koskorrekin kolpatu nuen baina ez zidan inork ireki. Sartzea erabaki nuen.

Eskola hasita zegoen. Hamar edo hamabi neskamutil zenbatu nituen. Biluzik eta eserita zeuden denak. Txabusina esekitokian utzi nuen besteenen gainean, eta zutik gelditu nintzen aretoaren erdian.

– Martina Fano –esan zuen Benoit delakoa izango bide zenak–, zure zain geunden.

Jakin-minez begiratu zidaten. Benoiten hitzei adi jarri zitzaizkien berriro. Libre zegoen aulkian eseri nintzen, larru hotza sentitu nuen ipurmasailetan. Denen gorputz argal eta zurbilak izerdi-patsetan zeudela jabetu nintzen. Benoit ere izerditan zegoen, alkandora blaituta zuen besapeetan eta bularrean. Hatsanka mintzatzen zen eta listuak alde egiten zion ezpainen artetik.

– Idazle eskasak zarete, narrasak, utziak! Noren errespetua nahi duzue hitz horien truke? Begiratu zuen ipurdiak, bularrak, bisaiak. Zer berri dakarte humanitatearen historiara? Bereziak zaretela uste duzue... Bakarrak... Begiratu zuen haragiari; begiratu zuen hitzei... Sentitzea ez da aski! Kontzientzia ez da aski! Ausardia ez da aski! Gazte harrook... Gauza bat esango dizuet: zuen buruez idaztea laketzen bazaizue, sartu luma uzkian eta egiezue fabore liburuak irekitzeko lana hartzen dutenei.

Bular txiki-txikiak zituen neska baten koadernoa hartu eta idazmahaiaren alboko makina birrintzailean sartu zuen oso-osorik. Txirbil bilakatu ziren orriak. Neskari dardara egin zion kokotsak.

– Ez duzu usteko ezer galdu denik, ezta? –esan zion ahotsa goratu gabe–. Hor ez zegoen ezer, orri horietan ez zegoen irakurtzea merezi zuen ele bakar bat ere.

– Baina... –protesta egin zuen neskak.

– *Silence, putain*! –agindu zion–. Samara!

Gerrirainoko adatsa zuen neska bat jaiki zen aulkitik. Eserleku ikusezin batean eserita balego bezala, bizkarra hormaren kontra eta belaunak tolesturik laurogeita hamar graduko angelua osatuz jarrarazi zuen.

– Ez mugitu nik esan arte.

Izterretara eraman zituen eskuak. Bi minutu igaro aurretik intzirika hasi zen neska.

– Orain! –agindu zion–. Atzoko dialogoa!

Neska erosta batean zegoen oinazez. Izerditan, aurpegira itsasten zitzaion ilea.

– Aski da! Aski da! –erregutzen zuen.

– Geldi egoteko esan dizut!

– Ezin dut gehiago, Marvis jauna...

– Segi!

– Etzatera noa...

– Geldi, puta alaena!

Elkarrizketan jarraitu zuten neska lurrera erori zen arte. Gero idazmahaiaren ertzera itzuli zen Benoit.

– Askoz hobeto, Samara. Askoz hobeto...

Ileak belarri atzeetan orraztu eta egurrezko zoruaren gainean biluzik zegoen neskak irribarre zintzoa egin zion Benoiti. Eskerrak eman eta bere lekura itzuli zen.

– Oinazea oinazetik, eromena eromenetik, sexua sexutik! –garrasi egin zuen Benoitek.

Ukabila estutu zuen bularraren parean. Ahotsa baretu zitzaion.

– Eta orain, idatzi.

Gazteek gorputz hezeak paperen gainean etzan eta izkiriatzeari ekin zioten. Ni ere idazten hasi nintzen. Joanak aipatzen zidan amorrua sentitu nuen matrail-hezurrean. Benoit besaulki granate batean eseri zen gure aurrean. Arretaz begiratzen zigun. Haren soa suma nezakeen orkatiletan, izterretan, aluan.

– Idatzi mundua zuen gorputz biluziei begira balego bezala. Zeren beldur zarete?

Gure inguruan paseatzen hasi zen.

– N’oubliez pas –esan zion nire alboko mutilari–: humanité, humeur, humilité.

Sorbaldan sentitu nuen Benoiten esku beroa. Idatzi nituen lerroak irakurtzen ari zela suma nezakeen.

Nire buruaren parera jaitsi zuen berea, haren hats lehorra usaindu nuen.

– Zabaldu hankak –xuxurlatu zidan–. Horrela.

Gau osoan lan egin genuen. Egunsentiarekin eman zigun Benoitek gelditzeko agindua. Irribarre egin zigun.

– Lan oso ona –adierazi zuen–. Mila esker; zoazte orain atseden hartzera.

Aulkietatik jaiki eta ilara bat osatu zuten gazteek. Banan-banan besarkatu zuten Benoit, estu eta luze. «Eraiki egun eder bat zure buruarentzat» esanez agurtu zituen denak. Nire txanda iritsi zenean, haren sabela eta hankartea nabaritu nituen nire gorputz biluziaren kontra, arnasketa motela, egur-usaina.

– Mila esker, Martina –esan zidan–. Eraiki egun eder bat zure buruarentzat.

Goizeko autobusean, egoitzara bueltan, esku-ahurretan berotasuna sentitzen nuen oraindik. Zoriontasun lasai batek zeharkatzen ninduen, zentzuz bete balira bezala begiradak, paisaiak, goiz hura. Korrika egin ostean edo mendian luzaroan ibili ostean izaten den sentsazio horren antzekoa zen, haragi nekatuaren pla-

zera, inguruarekiko elkartasun sakona, umiltasun betea. Banekien poltsan neramatzan orriak sekulan idatzi nituen onenak zirela, baina ez nuen hargatik inori irakurtzeko premiarik sentitzen. Arratsaldean amari bisita egingo nion berriro, eta aitari ere bai akaso, ilea luzatzen utziko nuela esateko. Eskuzabaltasuna erne zitzaidan, bizitzarekiko esker ona, euripean oinez ibiltzeko gogoa. Goizeko ihintzaren gainean lanerantz zihoazen bizikletazaleei begira egon nintzen leihotik. Irribarre egin nien autobusera sartu ziren bisaia logaletuei. Gosaritarako iritsi nintzen egoitzara. Eta loak hartu ninduen.

– Barkatu, Martina.

Ezustekoa hartu zuen mojak ohean lo ikusi nindue-nean.

– Joana Gilen gauzen bila nator.

Armairuko maleta txikia hartu eta orgatxo batean ezarri zuen.

– Nora joan da? –galdetu nion, oraindik aho zabalka.

Orgatxoa askatu zuen. Zuhur begiratu zidan.

– Ez al dakizu ezer?

– Zer jakin behar dut?

– Joana ospitalean dago. Istripu oso larria izan du bart gauean. Jainkoak lagunduko ahal dio gajoari!

Zutitu egin nintzen, erabat biluzik nengoela ahaztuta.

– Nola gertatu da?

– Zoritxarreko ezbehar bat. Auto batek harrapatu du egoitzara bidean kalea gurutzatzen ari zela.

Aitaren egin zuen bi bider. Eta bi ahizpari agindu zien liburuak erretiratzen hasteko.

Txingorra hasi zuen kanpoan.

Premiazkoa bakarrik sartu nuen bizkar-zorroan. Ahal banuen beste batean itzuliko nintzen liburuen bila.

Ekialdeko trena hartu nuen, probintzia herriz herri zeharkatzen zuena.

Hirian auto beltz baten argiak piztu ziren.

Kamera estenopeikoa

Banandu ondoko lehen hilabeteetan telefonoz hots egiten zioten lagunek, ezkonduek eta dibortziatuek. Nork bere erara epaitzen zuen Martaren egoera berria.

– Ondo nago –erantzuten zien denei Martak–. Sentitzen ari naizena nahiko ajustatua dela uste dut.

«Ajustatua» esaten zien, hori baitzen jendeari axola zitzaiona: ez zedila ez deprimituegi ez euforikoegi egon, mozkorregi edo bareegi.

– Ondo nago, bai. Afaria prestatzen ari naiz, utzi egin behar zaitut, txanpinoiak erreko zaizkit bestela.

Esaten zien nobela ingeles batekin barre handiak egiten ari zela, edo album baterako ilustrazioen bozetoekin ziharduela. Lagun-klasearen arabera.

–Zuk behintzat badituzu afizioak –bota zion duela urtebete senarra hil zitzaion lagun batek.

Halaxe da. Argazkigintza gustatzen zaio Martari. Azken boladan etxean egindako kamera estenopeikoarekin probak egiten ari izan zen, gero bere ilustrazio-

ekin konposizioak egiteko asmoz. Baina banatu zenetik utzita dauka hori ere.

Normalean, eserita eta ezustean harrapatzen du telefono-hotsak, ze ordutan bizi den arrastorik gabe.

– Ondo nago, primeran –erantzun dio–. Korrika egitera joateko zapatilak lotzen harrapatu nauzu. Lan asko egin dut eta haizea hartzera noa.

Semea etxean izaten den asteetan errazagoa izaten da, haren joan-etorriek zatitzen dizkiote masa itxura hartzen ari diren egunak. Gutxi batzuk ondo betetzea lortzen du: Jakesen otorduak hutsik egin gabe prestatzen ditu eta etxea txukun antzean mantentzen du, emakume zentzuzko orori suposatzen zaion eran. Hortik behera asko kezkatuko lirateke ingurukoak.

Baina oraindik ez da arkatzei heltzeko gai, aldian behin eta posta begiratzera besterik ez da igotzen estudiora. Beti marraztu izan du etxean, goiko pisuko txoritokian. Han dauzka arkatzak, akuarelak, ordenagailua.

Batzuetan, amorru-kolpeak jota, korrika egitera irteten da kostaldeko errepidera. Akitu arte egiten du,

bebarruan sartu eta nekeak kolpetik erasaten dion arte.

Gainerakoan, halako harridura goibel batekin mugitzen da, poliki, etxeari atera zaizkion ertz berriekin min hartzeko beldur balitz bezala. Haserrea argaldu eta abaildurak hartzen duenetan geldirik geratzen da lekurik absurduenean: komun-ontzian eserita edo gela baten erdian zutik, eta ordubete baino luzeago egoten da horrela.

Agusen psikologoari egozten dio erruaren parte bat, iruditzen baitzaio dena okertu zela senarra «orekatzen» hasiz geroztik. Beti onbera eta barkabera izan zen Agusi mugak jartzen irakatsi zion psikologoak, bere desioak adieraztera bultzatu zuen.

Jakes jaio zenetik haren zaintzarekin obsesionatu egin zela leporatu zion Martari.

– Bakartua sentitzen naiz –esan zion Agusek–. Jakesek ez ezik, nik ere baditut asebete beharreko premiak. Pazientzia handia daukat, baina egoera honek ezin du betiko iraun.

Bularra hain luze emateak, semeak haien ohe berean lo egiteak eta haurtzaindegira ez eramateko hartutako erabakiak bikotea zartatu zutela esan zion.

– Sexuaz ari al zara? –galdetu zion Martak.

– Horretaz ere bai.

Psikologoak gutxienez astean behin egitea gomendatu zion, eta astero galdetzen zion larrutan egin ote zuen. Egutegi bat zehaztera iritsi ziren, Marta ikasle-pisuan bizi zenean etxeko lanen banaketarako erabiltzen zutenaren antzekoa, eta hozkailuan paratu zuten Donostiako Aquariumetik Jakesek ekarritako arrain itxurako iman batekin.

Martak gorroto zuen bere burua emakume frigidoaren rola betetzen ikustea. Bere sexu-grinaren aurrean Agus asaldatu egiten zen garaiak ez zeuden hain urruti ere. Lehenago izan zituen neska-lagunak askoz bareagoak zirela esaten zion, «zientzietakoak zirelako, agian», eta Martak barre egiten zuen galtzetako kremailera hortzekin askatzen zion bitartean. Baina egia zen amatasunak edo adinak edo domestikotasun errepikakorrak libidoa apaldu ziotela.

– Ondo gona estuak janzten dituzu lagunekin irteten zarenean.

Agusen hitzek ez zuten sekula gaitzespen-doinurik, hori ere hala zen. Martak ez baitzion desiratua sentitzeari uko egiten, are gehiago, bilatu egiten zuen, baina ez zuen hargatik inorekin oheratzeko go-

gorik, eta iruditzen zitzaion gizonek ez zutela hori ulertzen.

Agus galtzontzilo hutsetan ikusitakoan «Hoztu egingo zara!» besterik ez zitzaiola bururatzen esaten zien lagunei, eta barre egiten zuten kontuari garrantzia kenduz. Haiek ere antzera zebiltzala aitortzen zioten: «Sexu gutxi, arrunta eta programatua».

Azkenerako, itzalaldi hura harreman guztien fase arrunt bat zela sinestera iritsi zen Marta.

Eta orain semearen galtzontziloak tolesteko adina indar biltzea kosta egiten zaio. Gizon baten taila dauka ia.

Gurasoei eta anai-arrebei telefonoz jakinarazi zien banaketarena, eta harritu egin zuen haien diskrezioak. Ez zitzaizkion aritu, beste asko bezala, Agus gizon ona zela eta halako erretolikekin. Sekula maina handirik egin ez zion ama igandeetan piper beteak ekartzen hasi zen, eta bere burua eskaini zion konpromisoren bat zeukan asteburuetan Jakesen kargu egiteko. Oraindik beste gizonen bat topatzeko garaiz zebilela pentsatuko zuen seguruenera.

Marta jakitun da Agusek eskuzabal jokatu zuela, arropak baino ez zituen eraman. Gurasoen jaioterrian hutsik zeukan baserri erdia alokatzea lortu zuen eta

sos haiekin apartamentu txiki bat errentan hartu zuen herrian bertan, Jakesentzat dena errazagoa izan zedin. Martak pixkanaka aienatzen nabaritzen zuen Agusen usaina. Bazekien iritsiko zela erabat desagertuko zen eguna.

– Ez ezazu porrorik erre –hori esan zion Agusek despedidan, betiko ahots apalarekin, masailean musu eman ondoren. Indartsu zirudien, eta gazte.

Urteak ziren Martak ez zuela belarrik erretzen, hogeita zazpi urterekin krisi psikotiko arin bat izan zuenetik.

Hurrengo astera arte agurtu zuten elkar. Handik aurrera halaxe despedituko ziren beti.

Agusek etxetik alde egin eta aste pare batera gizon baten mezua jaso zuen, berarekin hitzordu bat izatea gustatuko zitzaiola esanez. Ezagutzen ez zuen gizon bat zen, editore baten laguna itxuraz, ondoko herrian bizi omen zena. Martaren harridurarako, ez zen bakarra izan, aspaldiko ezagun pare batek eta entzutez baino ezagutzen ez zuen diseinatzaile grafiko batek ere egin baitzioten geratzeko proposamena, zerbait hartzeko edo.

Agusekin egon zen urteetan beste gizonezko guztientzako ikusezina zela sinetsita bizi izan zen Marta. Zer esanik ez Jakes jaio eta bere burua parkean umeari merienda zatika ematen ikusi zuenetik.

Lotsa sentitu zuen, hamabost urtean ahaztuta izan zuen ahalke urduri bat, norbait begira daukala dakienak soilik nabari dezakeena. Erne jarri zen, ikusgarri egin zitzaizkion berriro bere bertuteak eta akatsak, bere gorputza: haragia eta zimurrak. Ile-apaindegira joan beharko zuela pentsatu zuen, baina ez zen sentitzen ispilu baten aurrean eserita egoteko tenplean. Lanpetuta zebilela erantzun zien denei, agian deituko ziela egunen batean, libratzen zenean. Lau gizon haietariko bik erantzun berbera bidali zioten bueltan: «Deitu. Nahi duzunerako ;-)». Amaierako emotikono eta guzti.

Tabernak, kontzertuak eta gizonezko gehiegi pilatzen ziren guneak saihesten hasi zen Marta ia konturatu gabe. Kapsulekin funtzionatzen zuen kafe-makina moderno haietako bat erosi zuen. Lagun guztiei gomendatu zien: «Tabernakoa baino hobea ateratzen du».

Gaur goizean, tarte batean sukaldean zutik eta geldirik egon ondoren, Jakesi txiki geratutako arropak bildu behar dituela pentsatu du.

Sarrerako ate paretik igaro denean hots bat entzutea iruditu zaio. Behatxulora hurbildu eta aurpegi bat ikusi du atearen kontra. Hurbilegi nor den bereizteko. Agusez gain (Jakes eramatera etortzen denetan) inork gutxik egiten dio bisita.

– Nor da? –Marta pauso bat apartatu da atetik.

– Ur-kontagailua begiratzera nator.

Atea zabaldu eta zuzenean gidatu du harraska azpira.

Gizonak begiratu azkar bat eman dio etxeari. Armairua zabaltzeko makurtu denean, Marta sofa gainean nahaspilan dituen arropak jasotzen hasi da.

– Aizu, komuna erabil dezaket?

– Bai, jakina. Hortxe dago, ezkerretara.

Urruntzen ari den gizonaren izerdi-usaina iritsi zaio. Erreflexuz, Agusen usaina antzematen ahalegindu da Marta, baina kontagailu-irakurlearen besapeetakoak senar ohiarena erabat estali duela ohartu da. Kanilaren giderraren klak apala entzun du eta ondoren ur-txorrota. Kontagailua justu zaborrontziaren

atzealdean dago, eta eskuak garbitu nahiko dituela pentsatu du.

– Andereño...

Urteak dira Martak ez duela «andereño» hitza aditu, diru premian zegoelako egun erdiz haurrei pintura-eskolak ematen aritu zen garaitik. Bainugelako atera hurbildu da eta, eskuak konketaren alde banatan bermatuta, burumakur ikusi du gizona.

– Zorabiatu samar nago.

Komunera sartu gabe, sukaldeko aulki batean esertzeko aholkatu dio Martak. Bere atzean sumatu ditu gizonaren pausoak. Gero eta desatseginagoa zaion izerdi lehorraren hatsa. Martak aulki bat eskaini dio, eta zutik geratu da sukaldeko arasaren kontra.

– Zer, hobeto zaude? –galdetu dio.

Burua berriro besoen artean ezkutatuta dauka gizonak. Haren arropei erreparatu die. Galtza bakero maiztuak daramatza, eta lumazko beroki gris bat, Martari 80ko hamarkada gogora ekarri diona. Berokian enpresaren baten izena ez irakurtzeak harritu egin du baina, egia esan, ez du gogoan ur-kontagailua begiratzera etorri izan diren aurreko aldietan enplegatuek halakorik izan duten edo ez.

– Txakalaldia izan da. Ardorik baduzu?

– Ez dut etxean edateko ohiturarik.

Gizonak algara labur bat egin duela iruditu zaio Martari, baina ez luke asmatuko ziur esaten, karkaxa bat libratu izango du agian. Aulkia atzerantz bultzatu eta jaiki egin da gizona. Aurpegira begiratu eta irribarre egin dio Martari. Begirasunagatik, edanda dagoela esango luke.

– Beraz, kontagailu-irakurle itxura dut?

Zabalik jarraitzen duen sarrerako ateari begiratu dio Martak.

– Et-et, hori lehenago pentsatu behar zenuen.

Aterantz lau pauso eman eta itxi egin du gizonak.

– Zu bezalako emakume bakarti batek ez lioke atea edonori ireki behar.

– Zer nahi duzu, zertara etorri zara?

– Izutu egin al zara?

– Ez dut ezer ulertzen.

Berokia erantzi eta aulki baten bizkarrean zintzilikatu du gizonak. Eskuak igurtzi ditu etxeko epeltasuna eskertuz. Sukaldeko apaletako gauzei begira hasi da. Homeopatia-tutuak, limoi-itxurako kronometro bat eta Agusek dieta egiten zuen garaian erositako balantza digitala ukitu ditu. Sukaldearekin bat eginda dago-

en egongelara joan da gero, argazkiak dauden hormara.

– Oraindik ez dituzu senarraren argazkiak kendu?

Martak geldirik jarraitzen du sukaldean.

– Nahastu egin zara –esan dio–, ez nauzu ezagutzen.

Esku artean erabili duen Jakesen argazki bat berriro horman zintzilikatu du gizonak.

– Ez nazazu gutxietsi, Marta. Oso ondo ezagutzen zaitut. Baina, bistan denez, zu ez zara nirekin akordatzen. Hori da arazoa. Hori izan da beti. Benetan ez daukazu ardorik?

– Kafea besterik ez.

– Lehenago ez zen ardorik gabeko etxerik. Deskuidatzen bazara, ardorik gabeko tabernak irekiko dituzte laster. Baina, tira, hartuko dut zuk prestatutako kafetxo bat. Hutsa, mesedez.

Marta jiratu egin da. Kapsula beltz bat atera du kafe-makinaren ondoko tiraderatik. Egutegiari begiratu dio, Jakesi eskolatik aitarenera joatea tokatzen zaiola egiaztatzeko.

– Oso ondo ematen zizun mojetako uniformeak. Ez zinen ilea txirikordetan bilduta eramaten zuten neska horietakoa. Labur-labur mozten zizuten, kalparra ha-

rrotzen zitzaizun atzealdean. Garai hartan lortu nuen nire lehenbiziko lanpostua, eskolako lorategia txukuntzen. Miseria bat ordaintzen zuten, baina ez zen lan gogorra, bakean uzten ninduten.

– Azukrearekin?

– Furgonetatik jaitsi eta korrika igotzen zenituen eskailerak, eskolara iristen azkenetakoa izaten zinen... Ez dut azukrerik hartzen.

Martak ez du lorezainik oroitzen, baina arrazoi du: ilea labur moztuta eramaten zuen, amak ez zion-eta luzatzen uzten, zorriengatik. Gizonak esan bezala, larri-larri iristen zen beti eskolara, inoiz berandu ere bai, aitak jaisten baitzuen baserritik esne-partiketarako baliatzen zuen C-15ean, eta irratiko partea amaitu arte ez zuen abiatu nahi izaten.

– Gero hirira alde egin zenuen, unibertsitatera. Arte Ederrak, ezta? Ez zion grazia handirik egingo zuen aitari. Ni itsasoan hasi nintzen garaitsu hartan, *Mariñelak*en. Zerri eginda egoten ziren kamainak, hemezortzi gizonek lo egiten genuen han, arropa hezeekin askotan.

– Hemen zure kafea.

– Eseri nire ondoan.

Mahaiaren bestaldeko aulkian jesarri da Marta.

– Orain baino kanpaina luzeagoak izaten ziren ordukoak. Eguraldi zakurrarekin ere itsasoratzen ginen. Gatzak eta hotzak atzamarrak zartatzen zizkidaten, esku finekoa izan naiz beti.

Eskuak aztertu dizkio Martak. Ez luke delikatuak direnik esango.

– Baina atzazalak odolduta ere lanean jarraitu behar izaten genuen. Badakizu zerk arintzen zidan infernu hura? Egunen batean, etxeko bandan, moilan nire zain ikusiko zintudala pentsatzeak. Ondotxo dakizunez, hori ez zen gertatu. Gutxitan agertzen zinen kai aldean. Lagun atzerritar batekin paseatzen zenbiltzan batean antxoak eskaini nizkizun, urteko lehen antxoak; horrekin ere ez zara gogoratuko, baina eskua astinduz ukatu zenizkidan eta alde egin zenuen.

– Ez zen nire asmoa zu mintzea.

– Esker txarrekoa zara, Marta.

Pixka bat lehenago egin duen soinu bera egin du gizonak, marranta edo karkaila hori. Kristalezko mahaia kolpatu du kikara hutsarekin.

– Norbait mintzeko, aurrena intentzioa behar da, kontuan hartu behar izaten da mindu nahi den hura. Eta zuk ni ez nauzu ikusi ere egin. Azal iezadazu: nola da posible herri berean bizi eta ni ez ezagutzea?, kon-

tagailu-irakurlea naizela sinestea? Umiliagarria da. Iraindu egin nauzu. Gogoan duzu Txanelan topo egin genuen gaua? Zera izango duzu gogoan. Bi zerbeza atera nituen eta bat eskaini nizun, eta badakizu zer esan zenidan?

– Ez.

– Hoa beste batengana latamadrea ematera.

Ahoa ireki du Martak. Ezer esan gabe estutu ditu ezpainak.

– Hoa beste batengana latamadrea ematera. Heziera onekoa iruditzen zaizu?

– Sentitzen dut, benetan. Urte asko dira parrandan irten ez naizela, Jakes jaio zenetik. Ez dakit noizko kontuez ari zaren, baina mindu bazintudan ez zen nire intentzioa izango, festan ibiliko nintzen lagunekin, edanda egongo nintzen...

– Ez zenuen edaten.

– Orain ere ez.

Ezezaguna jaiki egin da. Kikara harraskara erretiratzeko aprobetxatu du Martak. Gizona alde egitera doala iruditu zaio une batez, baina egurrezko eskailerari begira geratu da.

– Zer dago hor goian?

– Nire estudioa.

– Erakutsiko al didazu?

Martak bidea libre duela adierazi dio esku-mugimendu batez.

– Zu aurretik joatea nahi dut.

Martak poliki igo ditu eskailerak. Txoritokiko atea ireki du. Gelara sartu eta ezkerretara apartatu da, gizonak lantokia ikus dezan. Aspaldi erabili gabeko pintzelak poto batean daude mahai gainean, akuarelen ondoan. Ezkerreko paretaren kontra liburutegia dago, eta apalen gainean lorerik gabeko orkidea bat. Eskuineko horman egurrezko marko urdina duen leiho bat eta, albo banatara, tamaina bereko bi koadro, Jakesen haurdunaldian margotutakoak. Atearen ondoan antigoaleko besaulki bat, goroldioaren kolorekoa.

– Eta hori? –gizonak idazmahaiaren alboko komoda gainean dagoen gaileta-kutxa seinalatu dio.

– Kamera estenopeikoa da. Etxean egindako argazki-kamera bat.

– Funtzionatzen du? –kutxa esku artean hartu du gizonak.

– Bai.

– Argazki bat egingo dugu. Hor eseriko gara, besaulkian.

– Ezinezkoa da –azaldu dio Martak–, biotako batek zutik geratu behar du kameraren zuloa estalgabetzeko. Zuloaren gaineko zinta isolatzailea kendu eta hamabost bat segundoz eduki behar da irekita.

Gizonak mesfidantzaz begiratu dio kutxari.

– Ongi da. Zu bakarrik aterako zara. Jar zaitez eroso.

Kamera idazmahai gainean kokatu du gizonak.

– Horrela ondo?

– Argi gutxi dago.

Errezela loratuak apartatu ditu.

– Erantzi ezazu jertsea, politago aterako zara.

Etxean janzten duen artilezko trikota gorriaren botoiak banaka askatu eta besaulkiaren albo batean utzi du. Tiradun kamiseta baino ez dauka soinean, bularretakorik gabe. Hotza sentitu du. Gizonak aurpegia erdizka estaltzen dion ile-xerloa apartatu dio.

– Egin irribarre.

Zuloa estaltzen duen zinta apartatu du gizonak, eta hamabost segundoz Martari begira egon da. Zuloa estali du berriro.

– Listo?

– Baietz uste dut.

– Ireki dezaket?

– Irekitzen baduzu hondatu egingo da argazkia. Ezin da argirik sartu. Gela ilunean errebelatu behar da.

Lehen komun txiki bat zegoen tokian dago orain gela iluna. Laborategi bilakatu zuen kamera estenopeikoarekin lanean hasi zenean.

– Errebelatzea nahi baduzu, denbora pixka bat beharko dut.

– Ez dut presarik.

Gela ilunera sartu dira biak. Atea itxi eta argi gorria piztu du Martak. Gizonak isilik jarraitzen ditu Martaren mugimenduak. Gaileta-kutxa ireki, paper fotografikoa atera eta likido errebelatzailean blaitu du. Beste bi edukiontzitan busti du gero. Paperean Martaren irudia eratzen dela egiaztatu du gizonak. Konketa urez bete eta hantxe utzi du erretratua.

– Hau negatiboa da. Positibatu egin behar da.

Argazkigintza-eskolak ematen ari balitz bezala hitz egiten ari dela pentsatu du Martak. Negatiboaren gainean beste argazki-paper bat jarri, segundo gutxi batzuetan argia piztu, eta bigarren papera ere likidoz beteriko ontzietatik pasatu du. Eta uretan utzi du gero. Bi pintza hartu eta gelaxka alderik alde zeharkatzen duen kordelean zintzilikatu du.

– Sikatzen utzi behar da.

Martak haizezko berogailu txiki bat piztu du argazkia arinago lehor dadin.

– Biluzik erretrata zintzakedan.

Zentimetro gutxitara daude, aurrez aurre, argi gorriaren azpian.

– Baina ez naiz zerri horietako bat.

Eskua luzatu eta gizonak beso bat ukitu dio Martari, lagunkoi.

– Zenbat itxaron beharko dugu?

– Ordu erdi.

Martak itolarria sentitzen du gela itxian.

– Goazen kanpora, zigarro bat erreko dugu –biltzeko tabako beltza atera du gizonak bakeroen atzeko patrikatik–. Erretzen duzu?

– Bai.

Gizonak leihoa ireki du eta jertsea jantzi du Martak.

– Eta? Zer asmo duzu orain?

Martak ez daki zertaz diharduen gizonak, une hartaz ala bizitzaz orokorrean. Bigarren aukerari heltzea erabaki du. Bat-batean lasaigarria iruditu zaio etorkizunaz pentsatzea, aspaldian sentitu gabeko arintasun bat sumatu du. Orain erraza egingo litzaioke galtzon-

tziloak tolestea, kalera ere pozik irtengo litzateke aspaldiko partez, eguraldi aparta dago kanpoan.

– Erakusketa bat prestatzen hasi nahi nuke.

– Ondo dago hori –ebatzi du gizonak–. Nik ere agur esango diot betiko kakari. Banoa hemendik! Itsasoa oso gogorra da, gastatu egiten zaitu, jan. Argentinara noa. Osaba bat bizi da han, eta lorezain bat behar du. Agian niretzako moduko emakume bat ere topatuko dut, nork daki.

Martak hautsontzia pasatu dio gizonari.

– Argazkia prest egongo dela uste dut.

Gela ilunetik argazkia eskuan duela itzuli da Marta. Pozik hartu du gizonak. Martak ez du ematen apartatu berri den emakume depresiboa. Elastiko azpian bular irmoak sumatzen zaizkio, lepo liraina, azal laxarik gabea. Irribarre egiten dio kamerari.

– Oso polita zaude, ondo gordeko dut –esan dio gizonak, eta eskailerak astiro jaitsita alde egin du etxetik.

Txirrinak jo zuenean, amaren piper beteak jaten ari zen Marta. Tomate-saltsaren zipriztin ñimiño batekin zikindu zuen blusa.

Behatxulotik begiratu zuen. Bi ertzain. Ireki egin zien.

– Marta Belaustegi anderea?

– Bai, ni naiz.

– Oskar Iribarren heriotza argitzen ari gara.

– Ez dut ezagutzen.

– Orruako haitzetan topatu dugu gorpua. Hogeita lau ordutik gora zeramatzan hilda. Argazki hau zeukan alkandorako patrikan. Zu zara, ezta?

– Bai.

Alferrik ukatuko zuen, bi egun lehenago egindako argazkia zen.

– Komisaldegira lagundu behar diguzu.

– Orain ezin dut, jaunak, semearen bila joan behar dut.

– Hori ez da gure arazoa. Egizu dei bat. Jantzi zerbait eta goazen, mesedez.

Piper beteak hozkailuan sartu eta amari deitu zion.

– Konpromiso bat daukat, ama, presazkoa. Jasoko al duzu Jakes Agusen etxean?

– Bai, neska. Jarri guapa!

Ondo lo egin

Telebistaren aurrean zeuden txirrinak jo zuenean. Martini begiratu zion. Hark sorbaldak goratu zituen doi bat, baina ez zuen jaikitzeko imintziorik egin. Tapaki estanpatua apartatu eta atera joan zen Ines. Hamaikak pasatxo ziren korridoreko horma-erlojuan. Behatxulora arrimatzerako ireki zuen atea.

– Ama –entzun zuen Martinek Inesen harridura, eta ondoren–: Baina zer gertatu da?

Agondu eta pijamaren alkandoraren botoiak presaka lotu zituen Martinek. Oinutsik hurbildu zen atondora.

Emakumeak aterki tolesgarri busti bat zeukan eskuineko eskuan, putzua egiten ari zena lanpasaren aldamenean. Urratuta zekartzan belaunak, galtzerdietan tarratak.

Guardasola erretiratu zion Martinek. Ama barrura pasarazi eta besaulkira gidatu zuen Inesek. Tentuz askatu zizkion lokarri fineko zapatak. *Erantzi jaka* esaten ari zitzaion, Martin baso bat ur eskaintzera hurbildu zenean. Edalontzia bi eskuen artean hartu eta trago

bakar batean hustu zuen, irenstean soinu desatsegina eginez. Beste bat ekarri zion sukaldetik. Halako presaz edan zuen, parpailadun blusaren paparra erabat busti baitzitzaion. Hatsandituta laga zuen edalontzia. Horrela iraun zuen minutu batzuetan, telebistan ematen ari ziren antigoaleko filmaren argiak masailetan proiektatzen zitzaizkiola.

– Parkean izan naiz –esan zuen.

Komunetik orrazi bat ekarri eta xerlo blaituak atondu zizkion Inesek. Belauniko paratu zen besaulkian amaren aldamenean; adatsa ezkerreko eskuarekin bildu eta eskuinaz korapiloak askatu zizkion emeki. Lehorgailuaren hotsak telebistarena estali zuen. Martinek zutik iraun zuen bi emakumeen aurrean Inesek amari, hatzak orrazi, adatsa nola astintzen zion begira, eta gero logelara erretiratu zen. Zabalik utzi zuen atea.

Besaulkitik jaitsi eta kokoriko jarri zen Ines amaren aurrez aurre, eskuak haren belaunburuetan. Besoak antxumatuta zirauen amak, kokotsa bularraren kontra estututa. Inesek telebista itzali zuen.

– Euria hasi du eta ez zen geratzen –azalpenak ematen hasi zen ama–. Korrika hasi dira. Jakekin estal-

tzen zuten burua, batzuek egunkariekin, eta joan egin dira denak.

Inesek baietz-baietz egiten zion buruarekin, zaflada txikiak ematen zizkiola izterretan.

– Zaude.

Logelara joan eta Martinen pijama batekin itzuli zen. Eskumuturretatik heldu zion amak:

– Ez nuen gogoratzen parkera nork eraman nindu en, ulertzen?

Esku hezurtsuak zituen. Zutitu egin zen:

– Ezin nintzen mugitu.

– Erori egin zara?

– A, ez da ezer.

– Gonbidatuen gela prestatuko dizut, ama –esan zion Inesek ahurra bekokira eramanez.

Emakumea deseroso mugitu zen besaulkian, baina aurka egin gabe. Alabak utzitako pijama usaindu zuen. Arropa hezeak erantzi eta nekez jantzi zuen marra bertikal urdinak zituen pijama.

Gonbidatuen gela txikia baina txukuna zen. Oheargia piztuta utzi zion, eta baso bete ur ekarri zion sukaldetik.

– Ezer behar baduzu ondoko gelan gaude.

Gau lasaia izan zuten. Goiz esnatu zen Ines eta etxepeko gozotegira jaitsi zen kremazko opilak erostera. Laranja-ura eta kafea egin eta Martin iratzarri zuen. Musu txiki bat garondoan. Lo arineko gizona. Irratia piztu zuen, oroitzen zuenez amak gustuko baitzuen goizetako albistegia entzutea. Izenez deitu ohi zion esatariari, abizenik gabe, etxekoa balitz bezala. Gonbidatuen gelara sartu eta pertsiana zabaldu zuen, amak umea zela egin ohi zion moduan. Gelaraino iristen zen irratiaren marmarra.

– Egun on, ama.

– Egun on, Ines –erantzun zion ohetik irribarrez.

Nagiak atera zituen. Leihoa apur bat zabaldu eta, estreinatu gabeko etxeko zapatila batzuk inguratzen zizkion bitartean, opil egin berriak erosi zizkiola kontatu zion, eta eguraldi ederra zegoela, natural-naturala.

– Zatoz sukaldera.

Martinek kafea eskaini zion katilu bat goratuz.

– Egun on, Edurne. Zer moduz egin duzu lo?

– Primeran –eskertu zion suhiari, oraindik haren pijama soinean–. Lo betea egin dut aspaldiko partez. Hau gosea! –esan zuen gero, mahaira atera gabe zegoen azpilari begira.

Opilak gerturatu zizkion Martinek. Erretilua hartu eta pasteltxoak usaindu ondoren bata bestearen atzetik irentsi zituen, apurrei mahai gainera erortzen utziz. Ez zuen hitzik esan denak jan zituen arte. Amaitutakoan hatz-mamiekin bildu zituen kondarrak, eta ahoratu haiek ere. Kafea baztertu eta ura eskatu zuen. Eta gero ur gehiago. Inesek Martini begiratu zion.

– Apetitu ona duzu behintzat –esan zuen hark.

– Ama, primerako eguna dago. Aterako gara paseotxo bat ematera?

Begiak argitu zitzaizkion. Aulkitik jaiki eta txapinak mahaipean ahaztuta irten zen pozarren sukaldetik.

– Goazen! –aditu zion Inesek urrundik.

Korridorera atera zenean sarrerako atearen ondoan ikusi zuen ama, pijama marratua soinean, eskua giderrean.

– Goazen, ba! –errepikatu zion.

Poliki hurbildu zitzaion Ines, eta deus esan gabe pijama-galtzetatik heldu zion, aldaken paretik.

– Buru hau! –lotsatu egin zen ama galtza zabalei begira.

Martin sukaldeko atearen markora arrimatu zen, kafe-kikara eskuan. Sofaren beso gainean tolestuta

zeuden bezperako arropak seinalatu zizkion Inesek amari. Galtzerdi berriak ekarri zizkion.

Oinetakoak janzteko makurtu zenean ohi baino baldarrago sumatu zuen. Bizkarra doi bat okertuta ote zeukan. Oreka galtzekotan egon zen pare bat bider.

Martinek sukaldera deitu zion Inesi. Keinu txiki bat buruaz.

– Ez dakit, Martin, paseo bat emango dut berarekin.

– Ez zoaz lanera?

– Goizean deitu dut, gaur ez naiz joango.

Musu labur bat eman zion ezpainetan, eta korridorera atera zen berriro. Ama prest zegoen, goitik behera jantzita orain, lehengo jarrera berean, eskua giderrean, oinak urduri.

Neguko ostiral ederra zen, hotza eta eguzkitsua. Kalera irteteaz bat Inesek besotik heldu zion amari. Ez zebilen jende asko, kamioi batzuk merkantzia deskargatzen. Atzerako argien txistu intermitentea. Lehenbiziko aldia zen amari gisa hartan heltzen ziona, zaharrei eta herrenei oratzen zaien moduan, ukalondoak guraize. Amak tira egiten zion aurrera, norabaiterako

presaz balego bezala, baina patxadaz hitz egiten zion, pausoarekiko asinkronikoa zirudien tenplez. Lanaz galdegin zion. Ez zuen gustuko laneko arazoez mintzatzea, baina kontatu egin zion.

– Tirabirak ditut lankide gazteago batekin. Trepa bat.

Ezin zuen motibo zehatzik eman, baina xorroxorro postua kendu nahi zion susmoa zeukan.

– Utzi denborari bere lana egiten –aditu zion amari esaten.

Ez zen aholkuak ematekoa eta harritu egin zuen iruzkinak.

– Bai, horixe izango da onena.

Erdigunera joatea proposatu zion, denda berri batzuk ireki zituztela eta soineko bana eros zezaketela. Uste zuenaren kontra, ama arropatan gastatu zalea baitzen, parkera joatea nahiago zuela erantzun zion.

– Parkea polita egoten da neguan. Nahi baduzu, lagunduko dizut gero soinekoa erostera.

Parkera iritsi orduko besoa askatu zion amak eta sakon hartu zuen arnasa.

– Ez da ederra?

– Bai, ama. Baina ez nekien parkean ibili zalea zinenik. Umetan ez ninduzun sekula hona ekartzen.

– Nahi duzun guztietan etorriko gara.

Negu-usainaz mintzatu zitzaion. Hirian galtzen ari omen ziren urtaroen lurrinak, horregatik atsegin zuela Floridara joatea.

– Zure aitari kalea gustatzen zitzaion, autoak eta espaloiak, jendearengandik hurbilago ibiltzeko.

Aita hil zenetik gutxitan hitz egin zion amak hartaz. Sei urte, gau eta egun, hura zaintzen eman ostean, senarra hil eta gutxira jakin zuen maitalea izan zuela hogei urtez, baita haurdun zegoen garaian ere. Inesek ere ezagutzen zuen auzoko emakume haragitsua. Hileta egunean eliz atarian ikusi zuten Marisa, aitaren amorantea, blusa loratua zeramala soinean. Hura izan zen amari min handiena egin ziona, blusa loratu bat, bere senarraren hiletan. Etxez aldatzea erabaki zuen handik gutxira, auzoa bistatik galtzearren. Ez zuten hartaz gehiago hitz egin.

Paseoan jarraitu zuten. Han-hemenka zuhaitz biluzien enborrak ukitzera gelditzen zen ama. Hatz-mamiz ukitu eta usaindu egiten zituen atseginez.

Aitaren arropa guztiak parrokiara eraman zituela kontatzen ari zen, bat-batean, esku bat airean astinduz izugarrizko txizalarria zuela esan zionean. Gertuan egon zitekeen tabernaren bat bilatu nahian itzu-

li zen Ines. Burua jiratzerako, ordea, gona gerriaren parera igota atzeman zuen ama, galtzerdiak orkatiletan, haritz-enbor sendo baten kontra maskuria husten. Parean jarri eta bere gorputzaz ostendu zuen. Albotik igaro zen bikote batek desairez begiratu zien.

– Tira, goazen –esan zion amak amaitutakoan.

Ipurdia astindu zuen azken gernu-tantez libratzeko. Lurruna zerion orbelari. Handik alde egiteko beharra sentitu zuen Inesek.

Kafetegi bateko terrazara eraman zuen, iparraldeko Europatik ekarritako berogailuak zeuzkan batera, eta su eman zion zigarro bati.

– Noiztik erretzen duzu? –galdetu zion amak, errieta-doinurik gabe.

– Eta noiztik egiten duzu zuk pixa kalean?

Ke-bafada askatu zuenean eztulka hasi zen begiak gorritzeraino.

Amak irribarre egin zion.

– Ama zaharraz lotsatuta?

Inesek hurrupa batean hustu zuen kafe-kikara. Ez zegoen harro amaren ipurdi bigunaz eta izter zelulitikoez, baina ez zen ahalke hutsa, ezin zuen konprenitu dutxatik tapa-tapa eginda ateratzen zen amak, sekula santan biluzik ikusi ez zuenak bat batean lotsa galdu

eta, nerabe mozkorren eran –hala esan zion–, parkearen erdian ipurdia agerian jartzea.

– Norekin etorri zinen atzo?

Indarrez amatatu zuen zigarroa hautsontzian, erditik hausteraino.

– Bakarrik. Zer galdera da hori?

– Atzo gauean esan zenidan ez zenekiela nork ekarri zintuen. Gaueko hamaiketan azaldu zinen etxera mela-mela eginda. Zer gertatzen da, ama?

Emakumea pentsakor geratu zen une batez. Zerbait esatera zihoala iruditu zitzaion Inesi, baina intziri txiki bat baino ez zuen egin, oinaze-keinu labur bat. Gerriko minaz kexatu zen.

– Noiztik zabiltza minez?

– Ez dakit, aste batzuk izango dira. Goazen etxera, Ines.

Besotik heldu zion berriro, baina lehen baino askoz zama handiagoa jartzen zion amak gainean. Konkortuta zihoan, eta hasperen txikiak egiten zituen urratsez urrats.

– Ama, aita ahaztu behar duzu.

– Goazen etxera. Jainkoarren, Ines! –haserretu zitzaion.

Etxeko atea zabaldu orduko lau-hankan jarri zen ama atarian. Keinua lasaitu zitzaion. Ura ekarri zion Inesek sukaldetik, eta ozta libratu zuen esku bat edalontzia ezpainetara eramateko.

Bere langelatik atera zen Martin, betaurrekoen gainetik korridorera begira. Presaka gerturatu zen lurrean lauoinka zegoen emakumea zutitzera.

– Utzi! –orro egin zion amaginarrebak.

Asaldatuta begiratu zion Inesi, emakume txeratsua izan zen beti Edurne.

– Gerriko mina duela dio –azaldu zion gizonari.

Begiak zabaldu eta ozen egin zuen hasperen, amak pazientzia galtzen ari zela igartzeko moduan. Martinek, Inesi ipurdian zaflada maitekor bat emanez, gerrialdea begiratzen uzteko eskatu zion amaginarrebari. Egongelara joan ziren, Martin aurretik, Edurne lauhazka eta Ines atzetik eskuak antxumatuta. Jaka eta blusa erantzi zizkioten.

– Noizbehinka gertatzen zait. Katuka jarri eta pasa egiten da.

Barruko elastikoa eranzteko agondu egin behar izan zuten une batez, eta nabarmena zen jarrera hartan sentitzen zuen oinazea. Lerdea zerion ezpain er-

tzetatik minaren minez. Lauhazka jarri zen berriro. Arnasa baretu zitzaion ostera.

– Eta hau? –higuin kutsuz atera zitzaion Inesi–. Ileak dituzu bizkarrean, ama!

– Hormonak izango dira. Nire edadean, badakizu.

Garondoan ugaritzen hasia zuen ilea, eta gerriraino zabaltzen zitzaion. Sarriagoa zen aldamenetan, saihetsen inguruan. Bilo iluna zen, baina ez gizon batzuek bizkarrean izaten dutenaren antzera kizkur samarra, erabat lisoa baizik.

– Bidaiaren bat egin behar zenuke, ama, bazterrak ezagutu. Berlin ederra omen da udaberrian. Zergatik ez dituzu hegaldiak begiratzen? –aholkatu zion Inesek Martinen onespena bilatuz–. Angeles han bizi da, ezta?

Mina sentitzen zuen lekuan masajea eman zion Martinek. Geldi-geldi iraun zuen amaginarrebak, gustura itxuraz suhiaren esku trebeen menera. Masajea amaitutakoan zutitzen ahalegintzeko animatu zuen Martinek. Jantzi eta besaulkian esertzen lagundu zion, eta eroso egon zen tarte batean telebistari begira, baina segituan erasan zion minak ostera, eta lau-hankan jarri behar izan zuen berriz. Jarrera hartan bazkaldu zuen. Mahai-tresnak alboratu zituen, baita ekarri

zioten aho-zapi brodatua ere, baina atera zioten guztia jan zuen; apetiturik ez zuen galtzen, behintzat. Arratsalde partera kuluxka bat egin zuen sofaren oinetan saiheska.

– Hitz egin beharra daukagu –esan zion Martinek Inesi.

Ama lurrean lo utzi eta sukaldera erretiratu ziren. Haren arnasotsa iristen zitzaien, zurrungaren bat.

– Zer egin behar dugu?

Ines eseri egin zen. Zutitu, armairu bat ireki, eta ezer hartu gabe, eseri egin zen ostera.

– Arreta pixka bat behar du. Ez dago ondo. Uste dut ez duela aitarena gainditu.

Esnatu zenean lauoinka hurbildu zen ama sukaldera. Ura eskatu zuen ahoskatu ere egin gabe, eztarrian karkasaren bat trabatu balitzaio bezala, arnasots lehor batekin. Ezpainetara hurbildu zion edalontzia Inesek. Mingaina luzatu zuen. Amaitutakoan esker onez begiratu zion, izterrera arrimatu zion burua.

– Edurne, zutitzen ahalegindu behar zenuke –aholku eman zion Martinek.

Makurtu eta emakumeari lepotik heldu zion, laguntzeko. Izkin egiten saiatu zen anderea. Berriro hurbildu zitzaion Martin, baina samatik heldu zionean orro egin zion Edurnek, zaunkaren antzeko hots ebaki bat. Apartatu egin zen suhia.

– Ama! –oihu egin zion Inesek.

Burua jaitsi eta sukaldetik alde egin zuen burumakur. Egongelako zoko batean etzan zen.

– Korrika egitera noa –esan zion Martinek Inesi–. Ezer behar baduzu, deitu.

Egongelara sartu zen Ines. Oinetara hurbildu zitzaion ama.

– Infusio bat prestatzea nahi?

Ama izerditan zegoen. Galtzak eta blusa erantzi zizkion, eta elastiko arin bat ekarri. Ezetz egin zion amak buruaz. Inesek biloa sarriagotzen ari zitzaiola egiaztatu zuen. Sorbaldetaraino zabaldu zitzaion, eta gerrialdetik izterretara.

– Ama, zutitu egin behar duzu –erregutu zion–, horrela ez duzu ezer lortuko.

Begi tristeekin so egin zion lurretik. Zutitzen ahalegindu zen. Bi besoak gora jaso zituen, baina belaun

bat altxatzerako minez intzirika hasi zen. Tinko begiratzen zion Inesi oinazez lerdea zeriola, alarau egiten zuen bitartean.

– Uztazu –errukitu zitzaion alaba, eta urrutiko kontrola pasa zion–. Jarri nahi duzuna.

Amak usaindu egin zuen tramankulua. Besoak jaitsi, eta oraindik negar-zotin ahul moduko batekin, besaulkira igo zen alabaren ondora. Izterretan bermatu zion burua, eta Inesek bere haragiaren kontra sumatu ahal izan zuen amaren arnasa baretzen.

Lo hartu zuen. Hala egon ziren tarte batean, ama altzoan lo eta Ines telebista itzaliari begira.

Bat-batean begiak ireki zituen. Besaulkitik jauzi egin eta aterantz abiatu zen ama. Handik tarte batera Martinen urratsak aditu zituen Inesek eskaileretan. Oihu txiki bat atera zitzaion atea zabaldu eta amaginarreba lurrean lauhazka eta erdi biluzik ikusi zuenean.

– Etorri, ama –deitu zion Inesek egongelatik.

Segituan joan zitzaion, esaneko. Martin ere egongelara sartu zen, Inesen oinetan arnasestuka ikusi zuen amaginarreba. Haragi-koloreko barruko arropak lekuz kanpo zirudien gorputz iletsu hartan. Bularrak dilindan zituen. Martinengana hurbildu zen poliki, eta

eskuineko zangora arrimatu zion bizkarra. Mingaina ahoaren albo batera zintzilikatzen zitzaion. Atzera egin zuen gizonak.

– Edurne, denbora-pasa batzuk ekarri dizkizut –esan zion suhiak.

Sudokuen liburuxka luzatu zion. Muturra hurbildu zuen Edurnek, baina jiratu eta sofaren oinetan etzan zen.

– Dutxatzera noa –erabaki zuen Martinek, eta atzetik jarraitu zion Inesek.

– Zu gelditu hemen –agindu zion amari–, eta ezer behar baduzu jo atea.

Logelako ohean eserita zegoen Martin, elastikoa izerdituta.

– Uste dut –zalantza egin zuen Martinek– kasurik ez egitea dugula onena, maitea.

Inesek irribarre egin zuen.

– Ez dio onik egin bakardadeak.

Ohean eseri zen bera ere. Elkarren aldamenean jesarrita egon ziren denbora luzez, isilik. Pauso-hots arinak baino ez ziren entzuten noizbehinka, egongela-tik sukaldera, sukaldetik egongelara.

Martin izan zen jaikitzen aurrena. Logelako atea zabaldu zuen.

– Pixa egin du –izan zen dutxara sartu aurretik esan zuen kontu bakarra.

Barruko arropak erantzi eta xukadera bat luzatu zion amari. Lanbasarekin lehortu zuen putzua. Arnasots handia egiten zuen amak, sabelaldea arinki hanpatzen zitzaion arnasaldi bakoitzean. Martin dutxatik irten zenean irribarretsu igaro zen emakume biluziaren aldamenetik. Muturra luzatu zitzaion eta bularrak txikitu.

– Har ezazu dutxa bat zuk ere afalaurretik. Erlaxatu egingo zaitu –proposatu zion Inesek amari–. Afari goxoa prestatuko dut. Zer iruditzen gula-entsalada epela?

Amak zirkinik egiten ez zuela ikusita, bainuontzia bete eta bertan sartzen lagundu zion. Intziri egin zuen. Gorputz osoa igurtzi zion xaboi garesti batekin. Ama deseroso mugitzen zen Inesen eskuen artean. Urberritu egin zuen. Argalagoa zirudien, ile blaitua gorputzera itsatsita. Jauzi batean bainuontzitik irten orduko astinduka hasi zen ingurua zipriztinduz.

– Zer iruditzen, joango al gara zinemara bihar?

Denek elkarrekin afaldu zuten. Inesek eta Martinek aurrez aurre eta amak mahaipean.

Ontziak batu eta gonbidatuen gelako atea zabaldu zion Inesek.

– Ondo lo egin, ama.

Preludioa

Fedek deitu zidan, albiste onak. Topatu zuten ezkerreko eskua: Leonard Elschenbroich, nazioartean nabarmentzen hasitako Alemaniako txelista gazte bat. Chicagon Brahmsen kontzertu bikoitza eskaintzetik itzuli berria zen, Christoph Eschenbachen zuzendaritzapean. Bychkov, Scarabino, Gergiev, Kitajenko, denak bat etorri ziren: «Ez duzue hoberik aurkituko».

Elschenbroich prest agertu zen ezkerreko eskuaz soilik aritzeko, eskuina Sararena izatekotan. «Irabazten aterako naiz», onartu zuen. Bi hilabete geneuzkan entseguetarako. Kolosala izan behar zuen, zutik jarriko genuen Kursaala.

Eiderri deitu nion, ohetik atera nuen. Nolatan deitzen nion ordu txikitan, Sara ondo al zegoen, erotu egin ote nintzen, ez pentsatzekoren bat pentsatu zuela.

Negarrez hasi zen notizia eman nionean. Tarte batean aritu zen zotinka ezer esan gabe, eta «Ezin dut sinetsi», errepikatu zuen gero bost edo sei aldiz, «Ezin dut sinetsi Sara berriz agertokian ikusiko dugunik».

Hasteko, Bachen txelorako lehenengo suitearen preludioarekin pentsatu nuela aipatu nion, eta zinkurinka hasi zen berriro. Eskerrak eman zizkidan, *gure Sara* esan zuen, telefonoa musukatu zuen.

Hurrengo goizerako gelditu ginen Sararen etxean. Zita baino ordubete lehenago deitu zidan Eiderrek, sututa: «Sarak ez du Elschenbroichen izenik aditu ere egin nahi. Palmeratxoak egin behar omen ditu arratsaldean bisitan datorkion lagun batentzat, eta traba baino ez omen diogu egingo han, etxean bueltaka».

Segituan joango nintzela agindu nion Eiderri.

– Ez zaukaat astirik talentu-ehiztarientzat –esan zidan Sarak.

Ez zuen aurpegia hostoretik apartatu. Miresgarria iruditu zitzaidan nik alferrikakotzat ditudan gorputzatalei ematen zien erabilpen praktikoa. Kokotsarekin ore kiribilduaren ertzari heldu eta hura mahai azukreztatuan hedatzen ari zen eskuineko eskuarekin.

– Eider, egidan mototsa.

Ilea bildu zion ahizpak. Sarak amantala zeraman soinean eta ezkerreko eskua ohi bezala zintzilik, altzoaren parean gakotuta. Pauso bat ematen zuen bakoi-

tzean eskuak izterra kolpatzen zion. Eiderrek esanda nekien batzuetan beltzuneak ateratzen zitzaizkiola. Gorriz margoturik zituen bi eskuetako atzazalak, eskuineko eskukoetan pintura arrakalatzen hasia zitzaion.

– Nirekin hitz egin nahi baduk, hau bukatu arte itxaron beharko duk.

– Itxarongo dinat.

– Alferrik ari haiz.

Azukrea bota zuen hostore gainean. Arrabola atera zuen tiraderatik. Giderretatik heldu beharrean esku-ahur zabalduarekin birarazten zuen egurrezko tresna, eta tarteka amantalean garbitzen zuen eskua. Horretan aritu zen azukrea orean ondo sartuta geratu zitzaion arte. Eider aulki batean eserita zegoen; azalean «Neuroanatomia: dakiguna eta ez dakiguna» goiburua zekarren aldizkari zaharkitu bat gainirakurtzen ari zen soinu handia eginez. Etengabe begiratzen zion labeko ordulariari. Orea tolesteko, alde batera eta bestera mugitzen zen Sara, toles bat eskuineko aldean, beste bat ezkerrekoan, oreak akordeoi itxura hartu zuen arte. Mantalaren patrikatik atera zituen artaziekin zatiak egin, erretilu batean banatu eta labera hurbildu zen herrenka, kristalezko azpilari helduta.

– Kontuz, Sara.

Ezin izan nion erretiluari heltzeko bulkadari eutsi, eskua erre behar zuela iruditu zitzaidan. Haserretu egin zen, ez zidan ordu-erdiz begiratu ere egin. Hiru zigarro erre zituen bata bestearen atzetik, sukaldeko leihoa irekitzeko lanik hartu gabe.

Erre egin zitzaizkion palmerak.

– Orain berriz hasi beharko diat.

– Ez dinagu astirik, Sara, garrantzitsua dun.

Algaraka hasi zen.

– Horixe pentsatu nian nik ere: emakume inportantea naiz, ez dut tronbosi baterako astirik. Eta ikusten duk...

Soina mugitu zuen ezker-eskuin, eta balantza egin zion esku ezinduak. Beste hostore orri bat atera zuen hozkailutik.

– Badakik zer egin nuen iktusaren goizean? Federi deitu nioan, ez nintzela entsegura iritsiko abisatzeko. Garrantzitsua zuan, ulertzen? Hil ala bizikoa. Berrogeita bost minutu eman nitian telefonoa markatu nahian: zenbaki bat markatu orduko ahazten zitzaidaan zein botoi sakatu nuen, eta esku maingua jarri behar izan nian sakatutako zenbaki bakoitzaren gainean hurrengoa markatu aurretik. Azkenean lortu nian, bai, zenba-

ki osoa markatzea, baina ezin izan nian soinu ulergarririk artikulatu. Bidean ertzain-patruila bat topatu nuela pentsatu zian Fedek, eta telefonoa izterren artean ezkutatu nuela, askotan egiten bainuen. Ordubetez egon zituan nire zain, kezkatzen hasi eta anbulantziari deitu aurretik.

– Entzun egin behar didan, Sara.

– Utziko diok esaldi bakoitzaren atzetik nire izena errepikatzeari? Maingua nauk, eta herrena, baina ondo aditzen diat oraindik.

– Leonard Elschenbroich maisua dun. Hogeita sei urte baino ez ditin eta Bernstein saria jaso din.

Sukaldeko mahaiaren gainean barreiatu nizkion txelo-jotzaile gazteari egindako kritika orbaingabeak. *The Independent, Frankfurter Allgemeine, Birmingham Post*. Serios ageri zen argazkietan: adats harroa, begi berdeak, azal zurbila. Musikari-itxurako musikaria.

– Ez dun halako aukerarik berriz izango. Ez zain egunero ezkerreko esku bat bidera aterako.

– Txelo-jotzailea ninduan. Ninduan. Orain elbarria nauk eta palmeratxoak egiten ditiat –orea azukreztatzeari ekin zion.

Zientzia-aldizkaria itxi eta zutik jarri zen Eider.

– Hobe dugu hemendik alde egitea.

Besotik heldu zidan. Eskailburura irten ginen, eta atea itxi aurretik arratsaldean deituko ziola jakinarazi zion ahizpari.

– Zaborra jaitsiz gero, eskertuko dinat.

Zaborra hartu eta igogailuan jaitsi ginen kalera. Goizeko hamaikak eta erdiak baino ez ziren, baina zerua ilun zegoen, euria ari zuen aspaldiko partez. Kafe bat onartuko al zidan galdetu nion Eiderri. Aterkiari eutsi nion hark plastikozko poltsa edukiontzira bota bitartean.

Leiho aldameneko mahaietako bat hartu genuen. Eiderrek bi eskuen artean eusten zion kafe-kikarari eta kanpora begiratzen zuen. Lehen eurite gogorra zen udazkenean sartu ginenetik. Bazuen Sararen traza, betartean eta ahoan batez ere, baina ez zen haren edertasun-mailara iristen. Lehenaldian pentsatu nuen: polita izandakoa zen Sara. Orain ere ederra zen, elbarria izateko. Sabatoren nobela bateko pasarte batekin oroitu nintzen. Protagonistari ez zitzaion gustatzen bere maitaleen ahizpak ezagutzea, amorantearengan erakargarri zitzaion ezaugarri bat, begi handiak, adibidez, neurriz kanpokoak begitantzen zitzaizkiolako ahizparengan. Baten begi handiak bes-

tearen begi irtenak ziren, eta edertasuna kasualitate genetiko hutsala baino ez zela ohartarazten zioten halakoetan. Ahizpa ezagutu ostean, maitaleari begietara begiratzen zion bakoitzean ozta-ozta libratu zela etortzen zitzaion burura. Gainbeheraren hasiera izan ohi zen. Ahizpen arteko alderaketak hain ohikoak eta errukigabeak izanda, Sararen gaitzak Eiderri nolabait mesede egin ziola pentsatu nuen: ahizpa itsusia izatetik (batere itsusia ez izan arren konparazioan galtzaile ateratzen zen nabarmen) elbarriaren ahizpa polita izatera igaro zen egun batetik bestera.

Negarrez ari zela ohartu nintzen. Neurritsua zen, horretan ez zeukan ahizparen antzik.

– Ez dut ulertzen –esan zidan–, elbarri izaten tematzen da.

Irribarre triste bat marraztu zitzaion, etsiak ematen duen lasaituak eragina. Masailean behera zetorkion malko bat lehortu nion hatz arinarekin. Belarri atzera eraman zuen bekokia erdizka estaltzen zion ilexerloa. Keinu hura Sarari noiz edo noiz ikusia niola iruditu zitzaidan.

– Elschenbroichi jotzen entzun orduko aldatuko du iritzia. Tipo horrek hogei urterekin Louvreko auditorioa zutik jarri zuen. Alemaniako kantzilerrak bere amaren

hileta-egunean jotzeko kontratatu zuen. Sara bigunduko da, ziur nago.

– Noiz iritsiko da?

– Bihar goizean.

– Txeloa jotzea larrua jotzea baino hobea zela esaten zuen Sarak –esan zuen lotsati–. Ez zegoela hankak horrela irekiarazten zituen beste instrumenturik.

Barre egin genuen. Beste malko bat lehortu nion, eta oraingoan nik eraman nion ilea belarri atzera.

– Gure Sara, hain muturrekoa beti –esan nion–. Gauza bat egingo dugu: gaur gauean zu eta biok afaltzera irtengo gara. Ireki berri duten leku bat ezagutzen dut, gustatuko zaizu –zutitu eta gabardina hartu nuen–. Ospatu egin behar dugu.

Paseo Berriko jatetxe batera eraman nuen. Dotorea zen, baina ez Eider deseroso sentitzeko adinakoa. Badut begia jendeak bere buruari baimentzen dion luxu mailari antzemateko. Errazio txiki eta esperimentalak ematen zituzten, baina ardoa norberak zerbitzatzen zuen. Askotan egiaztatu ahal izan dut emakume gehienei ez zaizkiela somelier erlamandoak gustatzen, kontrolatuta sentitzen dira kopa hustu orduko in-

guratzen zaizkien zerbitzariekin, edozein momentutan hurbildu eta *Ez al zara gehitxo edaten ari?* aurpegiratuko baliete bezala. Emakume izatearen gauzarik zailena edozertan neurri egokia zein den asmatu beharra iruditu izan zait beti. Zenbat denbora eman ote zuen Eiderrek gau hartarako jantzia hautatzen? Belaun gainetarainoko soineko beltza zeraman. Eskote estua. Zapata takoiluzeak. Ezpainetan margo leuna. Ilea garondoan bilduta. Lurrin-tanta batzuk.

Sarari buruz mintzatu zitzaidan:

– Hil egingo zela esan ziguten, eta esnatu zenean inork ez zuen uste berriro ibiltzeko gai izango zenik. Kontzentratzeko arazoak zituen, ez zen gai elkarrizketa bati eusteko, ezta film bat osorik ikusteko ere. Sukaldean hasi eta sua piztuta uzten zuen, ahaztu egiten zitzaion komuneko kanila ixtea. Bat-batean gazte izatetik ume izatera pasatu zen, dena egin behar zitzaion. Eta errehabilitazioari esker ume izatetik zahar izatera igaro da hiru urtean. Aurrerapen ikaragarria. Ezin dut jasan kalean agureek aurrea hartzen diotela ikustea. Baina badakizu zer den okerrena? Etengabe esaten duela lehen baino zoriontsuagoa dela orain.

Ahate-hanka bati heldu zion.

– Gai izango dela uste duzu?

– Ez daukat zalantzarik.

– Hiru urtean ez du txeloa ukitu ere egin.

– Hori ez da ahazten, maitasuna egitea bezala da.

Asko edan genuen. Eiderrek nik baino gehiago, lotsatien ausardia bitxi horrekin. Inguruko dantzaleku batera joan ginen. Eider harritu egin zen hainbeste jende heldu ikusita, gazte sentitzen omen zen. Barra ertzeko taburetetik altxarazi ninduen eskutik oratuta. Hogei urte bete arte Sarak eta biek gela berean lo egiten zutela kontatu zidan. Dantzan ari zen bitartean mintzo zen, hitz egiterakoan hurbilduz eta akademiaren batean ikasitakoak ziruditen saltsa-pausoen erritmora urrunduz.

– Behin mutil bat eraman nuen etxera. Isilka sartu ginen ohean, eta larrua jo genuen alboko ohean Sara lo zegoen bitartean.

Aurpegia estali zuen bi eskuekin, ezegitekoren bat egin zuela adierazi nahian.

– Zergatik ez zineten gurasoen ohean sartu?

– Ez nintzen ausartu, edo agian ahizpari erakutsi nahi nion ni ere mutil bat seduzitzeko gai nintzela, auskalo. Baina lo hartu nuen, eta esnatu nintzenean Sararen ohean aurkitu nuen tipoa. Alua miazkatzen ari zitzaion.

Erdi bana edaten ari ginen gintonica pasatu nion.

– Zer egin zenuen?

– Begiak itxi nituen, eta goizean nire aldamenean zegoen berriro. Gosaltzera gonbidatu nuen.

Handik alde egitea proposatu nion. Ez zuen euririk ari, baina lurra bustita zegoen. Nire apartamentura etorri nahi al zuen galdetu nion. Barre-algaraka hasi zen.

– Ez diat astirik talentu-ehiztarientzat –ahoskatu zuen ozta-ozta Sararen esaldia, eta gero lepotik heldu zidan balantzaka–. Bai, eraman nazazu, maitea.

Taxi bat geldiarazi nuen. Eiderrek lo hartu zuen etxerako bidean.

Leonard Elschenbroich erabat kitzikatuta zetorren. Sararen disko guztiak zeuzkala kontatu zidan autoz aireportutik hotelera eraman nuenean. Vienan eman zuen kontzertua inoiz entzun zuen hunkigarriena zela ziurtatu zidan, inork ez ziola txeloari soinu erre hori Sarak bezain ondo ateratzen.

– Será un placer echarle una mano –esan zuen ingeles txukunetik gaztelaniara jauzi eginda.

Irribarre egin zidan atzerako ispilutik.

Hotelean utzi nuen. Handik bi ordurako jarri genuen zita Sararen etxean. Bila pasatzea proposatu nion, baina bakarrik moldatuko zela erantzun zidan politeziaz. Agentziara joan eta ordenagailu eramangarria eta kontratuen paperak jasotzeko aprobetxatu nuen. Sararen azken bi kontzertuetako bideoak biltzen zituen DVDa ere hartu nuen Elschenbroichi oparitzeko.

Eider atarian neukan zain, bezperako soineko berarekin. Irri egin zidan hurbiltzen ikusi orduko. Etxetik pasatu eta arropak aldatzeko detailea izan zezakeela pentsatu nuen, baina ez nion ezer esan. Urduri jartzen nau lana eta ohe-kontuak nahasten dituen jendeak. Egia esan, urduri jartzen nau ohe-kontuak beste edozerekin nahasten dituen jendeak. Bi musu ematera hurbildu nintzaionean, lepoan nire lurrina antzematen saiatu nintzen, ez nuen Sarak gaua elkarrekin igaro genuela igartzerik nahi. Nire xanpua usaindu nuen haren ilean.

– Kaixo –esan zidan doinu kokinez.

Ahalik eta tonu neutroenean erantzuten saiatu nintzen:

– Egun on, Eider. Elschenbroichek bidean behar du, berehala da hemen.

– Mila esker gosariagatik.

Goizean aireporturantz abiatu aurretik presaka irekitako madalena-poltsaz ari zen. Berak esanda ohartu nintzen mahai gainean utzi zabalik.

– Ez da ezer. Igoko gara?

Keinua gogortu zitzaiola ohartu nintzen. Irribarre egin eta pozik egon behar zuela esan nion.

– Gaur da egun handia.

Igogailuan sartu orduko ohartu nintzen elkarrizketa hura bide txarretik abiatuko zela.

– Larrua jo zenidan?

– Ez.

Mindu egin ninduen emakume mozkor batez aprobetxatzeko gai nintzela pentsatzeak.

– Zergatik ez? Oso erraz jarri nizun.

– Ez zen nire asmoa.

Ahotsa leuntzen ahalegindu nintzen.

– Eider, mesedez, utz ditzagun gure kontuak beste baterako.

Txandal galtzak jantzita ireki zigun atea Sarak.

– Eta? Non utzi duzue nire ezkerreko eskua?

Umoreko zirudien. Bi musu eman nizkion.

– Oraintxe zatorren. Adeitsua izango haiz gutxienez? –gaztigatu nion galtzak seinalatuz.

– Zer, Elschenbroichek etiketa exijitzen dik, ala?

– Ja, klaar –entseatu nintzen alemanez.

Kafea atera zigun. Ospitalean zuten izeba bati buruz aritu ziren bi ahizpak.

Hamaikak eta erdietan puntuan jo zuen txirrina Elschenbroichek. Erreberentzia moduko bat egin zuen Sararen aurrean, dibertigarria egin zitzaidana. Ingelesez agurtu zuen. Zer moduz zegoen.

– I´m all right! –erantzun zion Sarak barre-karkailaka, dena eskuina zela, alegia.

Segundo pare bat kosta zitzaion erreakzionatzea, baina txisteak grazia egin zion txelista alemaniarrari. Lasai egoteko, «I´ll be all left», erantzun zion.

Onena gaiari lehenbailehen heltzea zela erabaki nuen. Itzulingururik gabe azaldu nien gure asmoa. 2016a zela-eta musika klasikoko ziklo berezi bat antolatu nahi zuten Kursaalen, ondoren Europara eramango zutena. Lotuta zeuden Viena, Paris, Praga eta Stockholm. Munduko musikaririk onenak bertaratuko ziren, eta antolatzaileak ziur zeuden zikloa ixteko egokiena Sara Vejer zela. Euskal musikari nazioartekoena zen, eta hiru urte zeramatzan kontzerturik eman gabe. Leonard Elschenbroichen laguntzarekin inoiz inork egin gabea egingo zuten, bi musikari bikain bat

eginda azalduko ziren taulan instrumentu bera besarkatuz. Txillidaren *Besarkada* izango zen karteleko motiboa, eta eskultura bera taularatuko zuten kontzertuaren egunean. Belaunaldien arteko zubia izango zen eta bi jenioren arteko fusioa, ezkerra eta eskuina musikak elkartuta, garai berrietarako perfektua, eskuzabaltasun-keinu paregabea.

Leonard hunkituta zegoela konturatu nintzen. Sarari begiratzen zion tarteka, haren adikunean onarpena bilatu nahian seguru aski.

– Utziko gaituzue bakarrik?

Harritu egin ninduen Sarak. Eiderri begiratu nion, eta baietz adierazi zidan buruaz. Beheko tabernan itxarongo geniela esan genien.

Bi orduz egon ginen zain. Eiderrek aurpegi ilunarekin jarraitzen zuen. Ez zuen bekokiko ile-xerloa arinki apartatzen, haren atzean ezkutatzen zen. Barkatzeko eskatu eta telefono-dei batzuk egitera altxatu nintzen. Itzuli nintzenean laguntza eskatu nion, bere beharra nuela pentsatzeak baretuko zuelakoan. Ordenagailu eramangarria piztu, eta eskuorrietan eta afixetan jarri beharko genuen Sararen argazkirik onena hautatzen lanpetu nuen. Denak ziren iktusaren aurrekoak, baina aurpegiz ez zen hainbeste aldatu, azala horitu zitzaion

doi bat. Bitartean kontratuen paperak antolatu nituen, Sararenak eta Elschenbroichenak. Datuak berrikusi nituen ondo zeudela ziurtatzeko.

– Honetan oso eder dago, ezta? –esan zidan katalogoa begiztatu ondoren.

Lauzpabost urte lehenago eginarazi genion saio batekoa zen argazkia. Kamerari zeharka begira ageri zen Sara, ezkerreko hatz arinarekin bekokiko ile-xerlo gaztainkarari eusten ziola. Goitik zetorren argiak aire misteriotsua ematen zion, beltzetik agertuko balitz bezala. Itzalak margotzen zitzaizkion aurpegian, eskuaren gerizak utzitako tarte argitsuan enmarkatzen zitzaion begirada, eta matrailezurrak nabarmentzen zitzaizkion. Baietz erantzun nion, erretratu indartsua zela, sentsuala. Zain gelditu zen. Bera ere eder zegoela esan behar nion agian, baina ez nengoen tenplean. Beste kafe bat eskaini nion.

Kalearen beste aldean ikusi genuen Elschenbroich. Bisaje alaia zekarren.

– Ez du egingo –esan zuen.

Bazkalosteko kafea hartzeko zitatu ginen Sararen etxean. Libre hartu nuen arratsaldea Kursaalera ahiz-

pekin batera joateko. Sara konbentzitu behar nuen kontzertuaren amaieran agertokira igo zedin. Besarkada betikotu behar genuen.

Iktusaren aurretik Kursaalen bertan eskaini zuen azken kontzertuan Sarak interpretatutako Bachen txelorako lehenengo suitearen preludioa joko zuen aurrena Leonardek, eta Sararen konposizio argitaragabeekin jarraituko zuen gero, haren larruan sartuz ia, ezbeharrak bidetik apartatu ezean egingo zukeena eginez.

Iristen azkenak izango ginela zin egin nion Sarari. Ez zuen kamerarik nahi inguruan. Iktusaren ondoren ekitaldi jendetsu batera joango zen estreinakoz.

– Eseri eta Elschenbroichen talentuaz gozatu nahi diat beste edozein elbarri melomanok bezala.

– Sarkasmoa txarra dun bihotzarentzat –errehabilitazio garaian akupuntoreak (Sarak fakirra deitzen zion) esan ohi ziona gogorarazi nion.

Federen esku utzi nituen azken soinu-frogak eta SGAEkoekin egin beharreko tramiteak. Goizean arduratu nintzen Maria Cristinara deitzeaz itxiera-festako gonbidatuen zerrenda zehazteko. Abiatu aurretik, aurkitu nuen xanpain botilarik onena bidali nion Elschenbroichi, ohar labur batekin: «Maisuarentzat».

Eiderrek ireki zidan atea. Gurin-usaina zerion etxeari.

– Garaiz zatoz, oraintxe atera ditu palmeratxoak labetik.

Sara zigarro bat erretzen ari zen sukaldean, ezpain artean eutsi zion niri erretilua luzatzeko.

– Gero eta hobeak ateratzen zaizkidak –esan zuen zigarroa ahotik atera gabe.

– Kafe hutsa, ezta? –galdetu zidan Eiderrek.

Ez zuen ematen minduta jarraitzen zuenik. Arintasunez mugitzen zen. Kafea zerbitzatzeko jiratu zenean, begirada haren ipurdi biribilean iltzatzea ezin izan nuen saihestu. Hartara gonbidatzen zuten larruzko galtza beltz estuek.

– Zer moduz dago Leonard?

– Primeran. Entseguetan, begiak itxi eta jotzen ari zena Sara zela iruditzen zitzaidan. Ezin hobeki beregantatu du euskal emakumearen harrizko sentiberatasuna.

Sarak barre egin zuen ke-bafada trinko bat askatuz. Eiderrek harrituta begiratu zigun. Sararen konposizio argitaragabeei gorputza eman ziela esanez jarraitu nuen, agian ez zela hain burugabea izan paper haien eskualdaketa.

– Etorri –besotik heldu zidan Eiderrek.

Egongelako besaulkiaren gainean hedatuta zeuden soinekoak ikustera eraman ninduen.

– Hau da Sararena. Ez al da izar batentzat egina?

Sarak entzuteko moduan esan zuen. Gero egongelako atea itxi zuen. Begirada aldatu zitzaion. Bigarren soinekoa, motzagoa, diskretuagoa, gorputzaren kontra jarri eta besaulkiaren beste aldetik hitz egin zidan.

– Gaur gauean zuk eranztea nahi dut.

Azken bi hilabeteetan kontzertuaren antolaketarekin buru-belarri aritu nintzen lanean, eta ez nien Eiderren deiei erantzun. Sararen ukoaren ondoren Elschenbroich prestatzea izan nuen eginkizun nagusia. Besarkadaren ideia metaforikoari eustea erabaki genuen, Elschenbroichek Sararen obra joko zuen haren txelo kuttunarekin. Opari eman zion hiru urtean laztandu gabeko instrumentua, 1717ko Stradivari bat.

– Horrela, ganoraz besarkatuko nau –baieztatu zigun Sarak, Elschenbroich txeloaren bila joan zenean.

– Maitasuna egitea bezala izango da –eskertu zion alemaniarrak, emakume baten gerrialdeari bezala oratuz egurrezko erlikiari.

– Hori baino gehiago. Maite-jolasetarako ez dut arazorik, baina nahita ere ezin dut inor bi besoekin besarkatu.

Eiderrek nire aurrean jarraitzen zuen satinezko soinekoari helduta. Ahizpa elbarriaren omenaldi-gaua nire ohean amaitu nahi izateak perbertsiotik zenbat zeukan kalkulatzen jardun nuen.

– Irrikitan nago –erantzun nion dena den.

Sararen pauso asinkronikoa entzun genuen egongelara hurbiltzen.

– Eider, margotuko dizkidan atzazalak?

Esmaltearen bila joan zen ahizpa. Hiru tonutako gorriak ekarri zituen.

– Argiena.

Sararen esku maingua bereen artean hartu zuen Eiderrek. Barrurantz bilduta zituen atzamarrak, izututako triku bat zen Sararen eskua. Eiderrek hatzak banaka apartatu zizkion atzazaletan kolorea emateko. Jarrera hartan bi nerabe ziruditen, udaberriko larunbat arratsalde batean.

– Sara, kontzertua amaitutakoan igoko haiz, ezta? Leonardekin batera agurtu behar dun publikoa.

Eiderrek putz egin zien ahizparen ezker eskuko atzazalei.

– Ez.

– Zor dien hainbeste. Beti egon ditun hirekin.

– Sarkasmoa txarra baldin bada bihotzarentzat, nahiago diat azken horri ez erantzun.

Sarari janzten lagundu behar ziola eta une batez biak bakarrik uzteko eskatu zidan Eiderrek. Balkoira atera nintzen zigarro bat erretzera. Hotz egiten zuen. Federi deitzeko aprobetxatu nuen. Leratsu sumatu nuen, baina ez omen zegoen arazo konponezinik. Amorratu egin zen Sarak ez zuela agertokira igotzeko asmorik jakinarazi nionean.

– Elschenbroich jaitsarazi beharko duk –ahalegindu nintzen lasaitzen–. Orain alferrik hasiko gaituk teman.

Pertsianaren xafla inklinatuen artetik Sarari galtzerdi finak janzten ikusi nuen Eider. Eskuineko besoarekin lepora helduta zeukan Sara. Pantyak igotzen ari zitzaion. Beso hila soinekoan sartzen lagundu zion Eiderrek. Federi adio esan eta berriz jiratu nintzenerako besaulkian jesarritako dama bat zirudien Sarak.

Egongelara itzuli nintzen. Bere jantziak hartu eta bainugelara alde egin zuen Eiderrek. Atera begira gelditu zen Sara.

– Orain dela hamabost urte bezalaxe segitzen dik.

Errukia antzeman nion ahotsean, baina erruki urruna, aseptikoa.

– Zer ordu da?

– Seiak.

Autopistan arazorik ezean ordu-erdi pasatxoko bidea genuen Donostiaraino.

– Nik autoa eraman behar dinat. Elkarrekin joango gara?

– Neurea hartuko diat.

– Seguru?

– Errepidea duk jendeari aurrea har diezaiokedan leku bakarra.

Ordenagailuaren aldameneko kutxa txiki bat seinalatu zidan.

– Egingo didak porro bat?

Latorrizko kutxatxoa ireki nuen. Hiru kukulu zeuden barruan. Usaindu egin nituen.

– Belarra erretzen dun?

– Noizean behin. Baina ez ezer esan Eiderri.

Su eman zion porroari. Keak begiak itxiarazi zizkion doi bat. Zoragarri zegoen. Berrogei urteak betetzeke, soineko luzearekin oinutsik, besaulkian erdi etzanda. Sekula nire besoen artean eduki gabeko emakume hura. Gau hartan bertan ahizparen ohetik

jauzi egin eta haren ohean isilka sartuko nintzela otu zitzaidan.

Eider kontzerturako prestatuta itzuli zenean barrez ari ginen egongelan.

– Zer iruditzen? –galdetu zigun soinekoa dantzarazteko biratuz.

– Orain dela hamabost urte bezalaxe segitzen duzu.

Irribarre zabal batekin eskertu zidan lausengua. Oinetakoak ekarri zizkion Sarari. Makillatu eta ilea bildu zion.

– Goazen –esan zigun–. Jendea zain daukagu.

Elkarri besotik helduta atera ziren ahizpak etxetik.

Autoa arrankatu bezain laster hots egin nion Federi. Dena ondo zihoan: «Lehendakaria eta emaztea etorri dituk». Baziren hamar minutu ateak ireki zituztela. Orkestra prest zegoen. Loreak iritsi ziren. Kursaala ondo lurrindutako jendez betetzen ari zen. «Esadak Sararen eserlekuaren zenbakia» eskatu zidan Fedek, «argiztatzaileek besarkadaren unea ongi harrapa dezaten». Ez nekien buruz. Sakelakoa sorbaldarekin belarriaren kontra estutu eta kopilotuaren aulkian neraman agenda zabaldu nuen auditorioaren planoa ateratzeko. Gero kamioi baten argiak ikusi nituen, bolan-

te-kolpe bat, balazten hots lehorra. Itzali ziren Kursaaleko argiak eta Leonard Elschenbroichek soinurik erreena atera zion Bachen preludioari.